




Haurren zaintza

Aitona-amonek greba egingo balute?

- **Euskara Irunen** Inguru erdaldunean erabilera sustatzeko estrategiak lantzen
- **Manu Aierdi**, EAJ «Ezin dugu jarraitu UPN honekin, ez dugu merezi»
- **Bernd Riexinger**, Die Linkeko presidentea «Aberatsentzako zerga bultzatu behar genuke Europa osorako»
- **Net Hurbil** Frantzia hondakinen errausketan txapeldun
- **Aingeru Epaltza** «Nobela historikoan ezin dituzu zure obsesioak eta aurre-juzkuak txertatu»



Palestina irtenbide justu baten bila



**Gatazkaren konponbiderako gakoak ulertzeko,
Lander Arbelaitezek Palestinatik idatzitako erreportajea
Datorren astean**



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruñia. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko otsailaren 16a, 2.403. zenbakia

ASTEKO GAIA

AMONA-AITONAK BILOBA ZAINZAILA Non daude gurasoak?
ONINTZA IRURETA AZKUNE / 4

PERTSONAIA

ANDREA BELLA: «Montevideoko Haize Hegoa euskal etxean gazteok beti ari gara parte hartzen». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

PREKARIETATEAREN AURPEGIK Erretretan naizenean, beltzean segi beharko dut lanean. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 15

SAGARDOTEGIAK Naturarekin harremanean.
ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

ABORTUA, DUINTASUNA ETA ASKATASUNA
GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 18

ORRATZAK ANUNTXI ARANA / 20

GAURKO MEMORIA HISTORIKOA: IZEN-ABIZENEN FALTAN
IVÁN GIMENEZ / 21

EUSKAL LURRALDE TASUNA ETA NAFARROAKO ALDAKETA
POLITIKOA PATXI ZABALETA / 22

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 19

TXANDAN Gure andereñoak. AMETS ARZALLUS / 20

BERTSO BERRIAK Sagardotegi boladan jarriak. AGIN LABURU / 21

ERDIKO KAIERA

AINGERU EPALTZA: «Nafarroako Erresuma gure nahi eta ezinen metafora da». MIKEL ASURMENDI / 23

BARATZA ARETOA Arte eszenikoak Gasteizen, erein eta jaso.
MYRIAM GARZIA / 27

KULTUR MARATILA Euskal eszenaren erakusgarria Leioan.
MYRIAM GARZIA / 28

LITERATURA X. ETXANIZ ERLE / 30 **MUSIKA** I. BARANDIARAN / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Lur emankorra. LANDER ARRETxea BEREZIARTUA / 33

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

MANU AYERDI: «UPN Gobernutik kentzea nahi da gizartean».
XABIER LETONA / 37

BERND RIEKINGER, DIE LINKE-KO PRESIDENTEA: «Mugak ez daude herritarren artean, mugak aberats eta txiroen artean daude».
MARTIN MENDIZABAL GARAI / 40

EUSKARA ERAGILEAK Nola suspertu euskara Irunen.
MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 43

GREZIA Osasun sistema publikoa desegingo du Greziako Gobernuak. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 46

EUSKARA ALBISTEAK, EKONOMIAREN TALAIA / 47

NET HURBIL Parisek atzea dauka beterik zabortegiz eta errauskailuz.
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

AMONA-AITONAK BILOBA ZAINZAILA

Non daude gurasoak?

Aitona-amonek greba egingo balute? Nork eramango ditu bilobak eskolara? Nork emango die jaten? Zeinekin joango dira medikuarenera? Emakumeak lan merkatura jauzi egin duenez geroztik haurren eta adinekoen zaintza kolokan geratu da. Egoera berriari erantzuteko politika sendorik ezean gurasoek adabakiak ipintzen dituzte. Aitona-amonak ume zaintzaile izarrak bihurtu dira.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Dani Blanco



GURASOEK estrategia konplexuak diseinatu behar izaten dituzte umeak zaintzeko. Ordu luzez lan merkatuari lotuta daude egunero eta haurrak nonbaiten “kolokatu” behar dira. Baliabide erabilienak ondokoak dira: amonak (eta aitona), mirabeak, haurtzaindegiak, ikastetxeak eta eskolaz kanpoko jarduerak. Erakunde publikoek bultzatutako uztartze politiketan beste bi baliabide ageri dira: lanaldiaren murrizketa eta eszedentzia. Emakundek 2007an argitaratutako azterketaren arabera (*Zaintzaren ondorioak. Uztartze estrategiak EAEko gizon-emakumeen eguneroko bizitzan*), zaintzaren eta enpleguaren arteko uztarketa estrategietan garrantzitsuena amonak dira. Oso guraso gutxi dira eguneroko bizitzan baliabide hori erabili gabe zaintza eta enplegua taxuz uztartzeko gai direnak. Sarri amona-aitonen prestutasuna izaten da zaintza strategiaren oinarria eta hortik abiatuta antolatzen da umeak artatzeko gainerako eskema.

Emakunderen azterketan, eztabaida taldeak aritu ziren, eta horietan argi ageri da amek nahiagoko luketela aitona-amonak ustekabeetarako laguntzaile baino ez izatea. Esate baterako, umeak gaixotzen direnean hartuko lituzkete aitona-amonek, eta ez egunero. Eztabaida taldeetan amek esandakoak dira ondokoak:

– Niri iruditzen zait une berezi batean baietz, baina etengabe... Berdin dio gazteak

edo zaharrak diren; uste dut pasatu dutela aldi hori eta erretiratzeko edo atsedean hartzeko unea iritsi zaiela. Edo, behintzat, ordutegi bat ez izatekoa. Biloba oso ondo dago une baterako, arratsalde baterako, baina egun osoako...

– Ez dadila betebeharra izan.

– Bai, haurrak pozgarriak dira, baina guretzat nekagarriak badira, pentsa gure gurasoentzat.

Amek haien gurasoak egoera zehatzetan laguntzaile izatea nahi dute, baina badakite egunerokoan laguntzaile baino askoz gehiago direla. Eztabaida taldeetan parte hartutakoek aitortzen dute abusuaren eta maitasunaren arteko muga zehaztea zaila dela; are gehiago familia sareak halako garrantzia duen gizartean, non amona gehienak laguntzeko prest agertzen diren.

Ikuspegi ekonomikotik begiratzen badugu, amona-aitonez gehien baliatzen direnak egoera ekonomiko estuenean daudenak dira, ordainpeko baliabideak ez dituzte eskura. Nolabaiteko abusua badagoela ohartarazi zuten ordea eztabaida taldeetako kideek. Hau da, arazo ekonomiko larririk ez duten gurasoek ere jotzen dutela aitona-amonengana, eta dirua haurrak zaintzen gastatu beharrean “bigarren mailakotzat” jotzen diren beste behar batzuetan eta aisialdian (oporretan adibidez) gastatzen dela. Ama batek hala dio:



Duela ez hainbeste amonak eta aitonak bizirik eta osasuntsu izatea luxua zen, gaur egun asko eta asko sasoiko daude, haurrak zaintzeko gai dira.

“Abusu handia dago, baina norberak jakin beharra dauka zein neurritaraino utz ditzakeen haurrak gurasoekin edo aita-amaginarekin. Norberak jakin behar du zein muga dauzkan bere familian. Nire ustez, abusua sortzen da ikusten baduzu zure amak ezin duela gehiago eta zuri mesede bat egiteagatik ari dela. Alegia, zu horretaz aprobetxatzen ari zarenean”.

Amonak, aitonak, eta oro-korreetan familia sarea zaintza lanetan aritzeak ondorio batzuk ditu. Azterketak hiru azpimarratu zituen: Lehenik eta behin, parte-hartzaileek “amona esklaboa” hitza erabili zuten bidegabeko erabilera izendatzeko. Elkartasunaren, belaunaldien arteko laguntzaren, eta batez ere generoan oinarritutako afektibitate loturen izenean,

Elkartasunaren, belaunaldien arteko laguntzaren, eta batez ere generoan oinarritutako afektibitate loturen izenean, gehiegikeriak egiten dira

gehiegikeriak egiten dira. Bigarrenik, ordaindu gabeko zaintza ari dira egiten eta horrek ordainpeko zaintzailearen kalitatea baldintzatzen du batetik, eta bestetik, erakunde publikoek zaintza/enplegua estrategiez dituzten politiken eraginkortasuna mugatzen du. Beste aukerarik ezean, “kontuak funtzionatzen jarraitzen du” —diote parte-hartzaileek—, “eredua birsortu eta mantendu egiten da”. Hirugarrenik, sare informalaren lanari esker kostuetan aurrezten dute gurasoek eta kontsumoko ondasunetarako eta zerbitzuetarako diru gehiago dute.

Haurrak ez dira jada lehen bezala hazten

Zer gertatu da parkeak amona-aitonaz beteta egoteko? Zergatik ari dira bigarren aldiz

Eli eta Kepa amona-aitonek bi biloba zaintzen dituzte

BIEN ETXEAN EGIN DUGU HITZORDUA. Kepa ebakuntza txiki bat egin berri dago, eta atsedena agindu dio medikuak. Seigarren biloba jaio da eta pena nabari zaie, haurtxoaren lehen egunak ez dituztelako gertutik bizi, Zestoatik Zarautzera joan beharko bailukete horretarako. Biak dira umezale amorratuak, ordu asko igarotzen dituzte bilobak zaintzen, baina ez dira biak iritzi berekoak aitona-amonen zaintzaile lanez. Hitz egiten hasi aurretik utzi digute argi ikuspegi desberdina dutela.

Eli hamazazpi anai-arrebetan laugarrena da, neska zaharrena. Ondorengoak zaintzea egokitu zitzaion, eta gustura egin zuen lan hori. Berak hiru seme-alaba izan ditu eta sei biloba dauzka. Senarrak hala dio: “Berarentzat ez da gauza berria, hiru belaunaldi zaindu ditu”. Elik seme-alabei lagundu beharra sentitzen du, “badakigu bestela ezin dutela aurrera atera. Gure eskuak behar dituzte edo beste esku batzuk, baina behar dituzte. Nik ere banituen esku batzuk, aitona Eliseorenak”. Aitona etxean bizi zen eta egoera zehatzetan haur bat ez bazen bestea haren esku lagatzen zuen. Laguntza ederra zen, 24 orduz zegoen aitona etxean. Hala ere diferentzia bat jarri du mahai gainean: “Hori bai, Eliseok esaten zuen ‘gaur Elgoibarra noa ferira’ eta joan

egiten zen”. Kepak senar-emazteen arteko ikuspegi desberdintasuna laburtu du segituan: “Eliren eta nire artean dagoen diferentziaren gakoa hor dago; lotura bai, baina neurria jartzea da kontua. Dedikazio osoa ez. Eli prest dago denari erantzuteko. Ez naiz ari Eliren seme-alabez, orokorrean ari naiz: gazteak berekoiak dira eta eskua ematen badiezu besoa hartzen dizute”. Elik beti zaindu ditu umeak eta berari orain gauza bera egitea normala iruditzen zaio. Haurrak gustatzen zaizkionarentzat zaintza lana oso polita dela uste du amonak, ez dio kontrarik aitona, zoragarria dela dio: “Askok betetzen zaitu, baina andreari esaten diot orain dela hamar hamabost urte beharbada dena egiteko moduan izango ginela, baina orain txikituta bukatzen dugu, fisikoki eta psikologikoki”. Kepak 70 urte dauzka eta Elik 64.

Kepak bigarren emaztea du Eli eta ez du familiarik izan. Ume fardelak aldatzea zer den ordea, aspaldi ikasi zuen. Hainbat senideren haurrak etxean ezagutu zituen, eta zaindu ere bai. Ez da hasiberria biloba deitzen dien seikotearekin.

Bizipenak bizipen, garai bateko zaintzatik hona bi alde nabaritu ditu Elik: bata, biek aitortu dutena, adinean aurrera doazen neurrian indar eta gaitasun

umeak zaintzen? Marta Luxani luzatu diogu galdera, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da bera, demografoa. Haurren zaintzaren panorama berria kokatzen lagundu digu. Bi aldaketa nagusi nabarmendu ditu: zer ulertzen dugun zaintzaz gaur egun eta adinen birdefinizioa. Gara ditzagun bi ideiak.

Atzo eta gaur haurrak ez dira berdin zaintzen, hazten, hezten. Gaur egun haurren zaintzari garrantzi handia ematen zaio, nahiz eta horrek ez duen esan nahi lehen pisurik ez zuenik gai horrek. Baina, irudika dezagun duela belaunaldi oso gutxiko haurren egunerokoa eta oraingoena. Denbora gehiagoz egoten ziren baka-rik orduko haurrak; eskolarako joan-etorriak helduen laguntzarik gabe egiten zituzten sarri eta bidean “galdu” egiten ziren. Orain berriz, apenas uzten diren bakarrik, eskolako ate aurrean zain izango du norbait, zuzenean etxera eramateko, edo musika eskolara edo igeriketara. Ia beti du alboan nagusiren bat.

Umeen ardura kolektiboagotik indibidualizaturagora jo da. Familia bakoitza bere

txikien zaintza ahal duen moduan konpon-tzen saiatzen da. Duela ez hainbeste, ohikoa zen haurrak kalean jolasean ibiltzea eta amak txandaka leihotik beha egotea. Indibidualizazioa, eta amatasun intentsiboaren eredua aipatu dizkigu Luxanek. Eredue horren arabera, umearen beharrak amarenaren gainetik ezartzen dira. Ardura osoa amarena da, erabaki oro oso garrantzitsua da, eta hanka-sartze bakoitzak zama astuna du. Oso eredu zorrotza da amarekiko eta ondorioak ditu aitona-amonengan. Amak enplegua badu eta haren bikotekideak ere bai, nork zainduko du umea ondoen? Etxekoenak amonak eta aitona-aitonak dira, haurtzaindegia-ekin edo ordainpeko zain-tzailearekin alderatzen badugu.

Amaren orde-zko egokiena amona litzateke.

Bigarren aldaketa nagusia adinak birdefini-tu izana dela nabarmendu digu Luxanek. , Gaur egun haurtzaroak luze jotzen du, ez dira hain aspaldikoak 11-12 urterekin neska-me eta morroi joaten ziren garaiak; irudikatu oraingo 12 urteko haurra etxe arrotzean lanean. Horrez gain, amona-aitonak sasoiko ditugu. Osasuntsu eta aktibo daude, seme-

**Etxekoenak amonak eta aitona-
aitonak dira, haurtzaindegia-ekin edo
ordainpeko zain-tzailearekin
alderatuta. Amaren orde-zko
egokiena amona litzateke**

gutxiago dutela umeen martxari segitzeko. Bestea, askatasun gutxiago sentitzen du bilobak zaintzerakoan; “ez dakit ondo ala gaizki ari naizen, seme-alabak ikasiak baitira. Gure esperientziak belarrikoak ziren, amak esandakoak. Hauek liburuak irakurri dituzte, nik alerik ez”. Haurrak diferente hazten ari direla dio Elik eta diferentzia batzuk gustatzen zaizkio eta beste batzuk ez: “Umea goxatu egin behar dela beti esan dut, baina beste pautak batzuk ere eman egin behar dira, eta gaurko umeak gehiegi harapatuta –besarkatzeko keinua egin du–, denetik gehiegi emanda, sumatzen ditut. Gu, aitona-amonak moduan –senarrari begiratu dio–, umeak goxatzen saiatzen gara eta gero gurasoei ematen dizkiegu. Heziketa gurasoen kontua da, sukaldetik abiatu behar du horrek, eskolan gauza batzuk ikasiko dituzte, baina heziketa nagusia sukaldetik hasten da”.

Ez da erraza argitzea astean zehar zein egunetan eta zein ordutan dauden lotuta. Gaur egun, Zestoan bizi den alabaren bi bilobak zaintzen dituzte. Zarautzen bizi dira beste bi seme-alabak baina haiengana nekez iristen dira. Ia egunero zaintza lan gehiago edo gutxiago egiten dute. Alabaren lan ordutegia zoramen da, baita alaba berarentzat ere. Psikologoa izanik batera eta bestera dabil, premien arabera eskaerei erantzuten. Egunean zehar lanari heldu behar badio aitona-amonak dira makulu, senarrak ere egun osoan egiten baitu lan. Egun pisutsuenak astelehena eta osti-

rala dira; goizean hasi eta iluntzera arte. Ez dituzte magalean ordu luze horietan, 4 urtekoa eskolara doa eta txikiena (17 hilabete) haurtzaindegira, baina eraman-jasoak egiten dituzte, eta bazkaria haiek prestatzen dute mahaian bilduko diren hiru belaunaldientzat. Elik dio alabaren egoera ongi ulertzen duela: “Goizean lanera joaterakoan gauzak utzi dituzun bezalaxe aurkitzen dituzu itzulitakoan, dena egiteko dago eta gainera biharko bazkarian pentsatu behar duzu. Horrela dabilena ikusten badut nire buruari esaten diot ‘gauza baldin bahaiz lagundu egin behar dion’. Goizean beti bezala umea etxera ekarri dizu bera lanera doalako, eta esaten badizu hamar minutuz ohean etzango dela gauean ez duelako batere lorik egin, zer egingo diozu? Ahal bada baita tapakiarekin estali ere”.

Elik ezagutu du bikoteren bat haurrak aitona-amonekin utzi eta beherapenetara joan dena egun osorako. Berekoikeriaz umeak amona-aitonei uztea ez zaio egokia iruditzen, baina bere seme-alabek lan kontuengatik eskatu izan diote laguntza eta hori balortzekoa dela uste du.

Lehenbiziko umea jaio zenetik gustuko lanak utzita dauzka Elik. Haurrak koskortuko dira eta zaletasunei heltzeko esperantza badu; lagatako bainika lanei eta marrazketari, behinik behin, helduko die. Kepak asti gehiago behar du irakurtzeko, bidaiatzeko eta hain gustuko duen naturaz gozatzeko.

alabek ez dute uste guraso ahituak dituztenik, inondik inora. Duela belaunaldi gutxi ez zen hain ohikoa aitona-amonak bizirik izatea, eta are gutxiago osasuntsu.

Hirugarren elementu bat gehitu du Luxanek, zaintza estrategiak ulertzeko gakoetako bat: gurean familia sareak duen garrantzia.

Egoera itogarriak sortzen dira umeek arduratu behar denean eta horien artean muturrenetako batez akordatu da Luxan: *sandwich belaunaldia* izenekoari gertatzen ari zaiona. Gurasoak eta bilobak ari dira zaintzen garai berean. Luxanen hitzetan, “ezin

dute gehiago, karga oso handia da. Horren handia, emakumeen artean diote, garaia iristen zaienean nahiago dutela zahar etxera joan beraien seme-alabek ez dezaten pairatu beraiek pairatzen ari direna”. Emakumeak izan ditu ahotan EHUKo irakasleak, izan ere gero eta aitona gehiago ari badira ere haurrak zaintzen, adinekoak artatzen emakumeak dira nagusi.

Derrigorrez zaindu beharra

Marta Luxan demografoak ez du zalantzan jartzen biloben eta amona-aitonen arteko



Leioa 2014

Lau egunez euskal sorkuntzaz gozatzeko parada

OTSAILAK 20
“Konpota”
Dxusturi Teatroa
ANTZERKIA

OTSAILAK 21
“NAN”
Ertza-Asier Zabaleta
DANTZA

“Transhumantzia”
Mixel Etxekopar
& Francois Rossé
MUSIKA

OTSAILAK 22
“Zazpi aldiz elur”
Tantaka
ANTZERKIA

“Pepino ustelak (hozkailean)”
JB Pedradas
ANTZERKIA

OTSAILAK 23
“Gabrielen lekua”
Gabriel Aresti Kultur Elkarte
/ Zenbat gara
BERTSOAK / MUSIKA / ANTZERKIA

BILOBA ZAINZAILA

harremanen balioa, baina gauza bat da atseginez zaintzea eta beste bat derrigorrez aritzea. Maitasunaren izenean behartuta-ko lana bihurtzen baita sarri.

Norberak etxeko arazoak konpondu beharrean zerbitzu publiko onak aldarrikatzea ez al den egokiena galdetu diogu. Luxanen ustez, kontua da gurasoak ez daudela zaintzaile lanetarako, eta galderak ondokoa beharko luke izan: “Non daude gurasoak? Zertan ari dira? Gizarte honen erdigunean enplegua eta kapitala daude, goazen bizitza zentroan jartzera. Zaintza oso garrantzitsua da. Askotan pentsatzen dugu bi muturrek behar dutela zaintza, haurrek eta adinekoek, baina guztiok behar dugu. Ongizate estatua erortzen ari da. Gauza piloa familiaren esku geratzen ari da, zaintza kontuak tarteko. Ados, oraingo aitona-amonak ez dira duela 40 urtekoak, baina horrek zer esan nahi du, zaintza lanak egitera derrihortuta daudela?”.

Mediterraneoko eremuan senideak dira zaintzaile

Mila Amurrio EHUKo irakaslea da, soziologoa. Hausnarketa bat mahaigaineratu digu: “Nola liteke Espainiako Estatuan jaiotze tasak hazkunderik ez izatea?”. Norvegiarekin alderatu du Espainiako Estatuak. Emakumeak lan merkatura jauzi egin du eta Europako batez besteko jarduera tasara heldu da ia-ia. Norvegiar adibidez antzeko zifrak dituzte, baina jaiotze tasa altuagoa da. Frantziako Estatuan ere bai. Europa iparraldeko hainbat herrialdetan, eta beste zenbaitetan, zaintza lanaz ari direnean ez dute familia erdigunean ipintzen, senideak ez dira haurrez arduratzeko berebiziko baliabide. Hegoaldearekin alderatuz, Ipar Euskal Herrian, diru-laguntzez eta ordainpeko zaintzailetzaz baliatzeko joera handiagoa dago. Amurriok gogoeta orokorra egin du: “Hautua beti emakumearena da, enplegu ibilbidean ez dauka ezer sakrifikatu beharrik, babestuago dago emakumea”. Haurra izandakoan denbora gehiago edukiko du etxean zaintzeko, diru-laguntzak ere bai, eta kontu inportantea, lan merkatura itzultzea bermatuta izango du. Mediterraneoko herrialdeetan familia sareak



Gure jendartean umeak zaintzeko lehen heldulekua familia da. Hark kale egiten badu, administrazioaren baliabideetara jotzen da.

da ardatz, hari eskatuko zaio laguntza lehen-dabizi eta horrek huts egiten badu, orduan ageri da administrazioa.

Zaintza eta produkzio orduak ez datozenez bat hainbat eratako irtenbideak aurkitu dituzte gurasoek. Familiaz gain, langileak kontratatzea eta lanaldiak murriztea azpimarratu ditu Amurriok. Goi mailako klaseek beti jo dute ordainpeko zaintza lanetara, baita klase ertainek ere, krisiaren olatuak harrapatu bitartean. Bateko egoera ekonomiko kaskarra eta besteko bi soldata izanda ere iritsi ezina, alegia, bizitza mailari eusteko (etxebizitza,

aisialdia...) jornal pareak behar, eta beraz, ezin heldu zaintza lanak ordaintzera. Beste aukera lanaldi osoan ez aritzea da, hanka bat lantokian eta bestea etxean haur zaintzan. Aukera horri ia erabat emakumeek heldu diote. Amurrioren ustez, “gizonek orokorrean ez dute planteamendu bera egin zaintza eta enplegua lotzerakoan, nahiz eta zerbaitetan hasi diren. Dena dela, haiek ere produkzio munduan daude eta lan ordutegiak dituzte”.

Zaintzaren krisia pil-pilean dago. Ariketa zaila da zaintza eta enplegua uztartzea. Era-kunde publikoek politika ausartagoak abian jarri ezean, edo Marta Luxanek dioen moduan, jendartearen erdigunean enpleguaren ordezkari bizitza ipini ezean, orekarik ez da izango, eta parkeetan amona-aitonek ume zain segiko dute. ■

“Non daude gurasoak? Zertan ari dira? Gizarte honen erdigunean enplegua eta kapitala daude, goazen bizitza zentroan jartzera”

Marta Luxan, demografoa



euskal kulturaren urtekaria

2013



- Urteko hamar gertaera esanguratsuak
- Kulturaren esparru bakoitzean jazotakoak, sailez sail
- Azken hilabeteetako adierazpenik esanguratsuenak
- Euskal kultur arloko joeren aurrerapena
- Datu eta estatistika interesgarriak
- Bukaeran, gida praktikoa, kultur jardueretako pertsona eta taldeekin harremanetan jartzeko kontaktu bideekin

ESKURA EZAZU

☎ 943 37 15 45
argia.com/denda
denda@argia.com

«Montevideoko Haize Hegoa euskal etxean gazteok beti ari gara parte hartzen»

Horra neska gazte bat, Uruguaiakoa, euskaraz ikasten Lazkaon, euskaraz mintzo, euskal jatorririk batere gabe. Euskal dantzak gustatzearekin bat gustatu zitzaion euskara, eta ikasten eta irakasten da harrezkero Montevideon.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Zer ari zara zu, uruguaiarra, Lazkaon, Maizpiden?

Euskara ikasten. Zortzigarren urratsean ari naiz. Lehenengo, lehen mailari dagokion froga egin nuen, hau da, seigarren urratsa. Baina gero nire kabuz ikasten jarraitu nuen eta hemen ari naiz. Euskarazko klaseak ematen ditut Montevideon, nire euskal etxean, Haize Hegoa du izena. Izan ere, Uruguain euskal etxe asko dago: Montevideon, San Josen, Salton, Colonian... Montevideon bertan, adibidez, hiru daude. Bestalde, euskal etxe guztiak federazio baten barruan daude, FIVU, Uruguaiako Euskal Erakundearen Federazioa, han batzen dira guztiak.

Euskara ikasle Lazkaon, irakasle Montevideon eta San Josen. Jatorriz ez zara euskalduna...

Bella italiarra da, eta Garcia, berriz, Galiziakoa. Aitona asturiarra nuen. Haren arbasoak, berriz, galiziarak, Ferrolekoak. 2007an ere hemen izan nintzen, eta Asturiasera joan nintzen. Italiara, aldiz, ez naiz inoiz joan. Euskara ikasle naiz hemen, eta irakasle Uruguain, baina euskarak baino lehen, dantzak lotu ninduen herri honetara. Haize Hegoan jaialdi bat egin zuten eta hara joateko gonbidatu gintuzten, gure ama eta hiru ahizpok, Paola, Viviana eta hirurok. Hasieratik gustatu zitzaizkidan euskal dantzak. Oso dinamikoak iruditu zitzaizkidan. Eta ikasten hasi nintzen. Orain dela hamabosten bat urte hasi nintzen dantzan ikasten, euskal dantzak, eta tangoa, adibidez.

Nor izan zenuen irakasle?

Haize Hegoa euskal etxean, Maite Bengoa. Bera han jaioa da, baina ama euskalduna du. Dantzan badaki Maitek, eta bera da han irakasle. Baina ez nintzen ni bakarrik hasi ikasten, gure amak eta bi ahizpok ere ikasi genuen. Taldea ere bada: Eusko Indarra du izena, Youtuben duzu gure taldearen hogeita bosgarren urteurreneko emanaldia. Duela bi urte, berriz, hogeita hamar urte bete zituen, beste emanaldi berezi bat egin genuen, eta bertan nire alabak ere dantza egin zuen. Berari ere gustatzen zaio. Hiru generazio izan ziren dantzan: gure ama, gu alabok, eta Micaela, nire alaba.

NORTASUN AGIRIA

Andrea Bella Garcia (Montevideo, 1978). Italiarrak eta galiziarak, erdibana ditu gurasoen jatorriak. Bera, berriz, euskaraz ikasten hasi zen noizbait, eta euskaraz ikasten eta irakasten ari da gaur egun. Montevideoko Haize Hegoa eta San Joseko Euskaldunak taldea euskal etxeetan euskara irakasle da, eta Haur Hezkuntzako irakasle Uruguaiako hiriburuko 316. haur eskolan. Hirugarren aldia egin du Euskal Herrian. Uda dute han, eta, oporretan delarik, bi astez izan dugu Maizpiden, euskara lantzen. Hirugarren astean lagunetan izan da, Gasteizen, Algortan eta adiskideak diren tokietan. Noticias Vascas izeneko atala du Facebooken.





Alejandra Telleria

“Montevideon, adinekoen artean ez dago euskaraz dakien jende asko. Maite Bengoaren ama dago, adibidez, Alejandra Telleria. 82 urte dituela uste dut. Beti kontatzen du ez ziola alabari euskaraz irakatsi bera gipuzkoarra delako eta senarra, aldiz, bizkaitarra zuelako. Batak *pareta*, besteak *horma*, eta ez zirela inoiz ados jartzen. Harekin hitz egiten dut euskaraz, ulertzen diot, behintzat. Ahizparekin zaila zait euskaraz hitz egitea. Email mezuak eta whatsappak euskaraz izaten ditugu, baina hitz egin, ezin. Pertsona batekin harremana hizkuntza batean sortzen duzunean, zaila da aldatzea, nire irakasle Jon Urdangarinen hitzetan”.

Zein dantza ikasi zenituen?

Eltziego dantza, Axuri beltza, Zazpi jauzi, fandangoa eta arin-arina... eta beste hainbat. Dantzan ikasi genuen, eta euskal etxeak antolatzen dituen jaialdietan erakusten ditugu. Beste batzuetan, berriz, erakusketa egiten dugu, edo modu pribatuan egiten ditugu emanaldiak. Deitzen gaituzte, kontratatzen gaituzte, eta joaten gara. Urtebetetzeetan, adibidez. Gero, beharbada bilerarik handiena Argentinakoa dugu, Euskal Astea egiten baitute han. Esan nahi dut, emanaldi asko edo gutxi, urtean beti ditugula zenbait dantzaldi.

30 urte ditu Eusko Indarra dantza taldeak. Eta Haize Hegoa euskal etxeak?

Horixe, hogeita hamarren bat. Euskal etxe zaharragoak dituzu Montevideoko beste biak: Euskaro, eta Euskal Erria. Horiek ehun urte ere badituzte. Gurea berria da, irekia, ez dute mugarik jartzen, ez duzu euskaldun izan beharrik, euskal deitura izan beharrik bertako kide izateko. Euskaro euskal etxean –Euskaro Español zen haren izena lehen–, ez zen horrelakorik. Euskaro ere FIVU barruan dago eta, esaterako, hortxe ematen ditut nik euskarazko eskolak. Eman nituen iaz, eta aurreten ere ematea espero dut. Dantzak Haize Hegoa euskal etxean egiten dira.

Nola egin zenuen jauzi dantzatik hizkuntzara?

Lehenengo, nire ahizpak egin zuen jauzi hori, Paolak. Euskara ikasteko aukera bazela esan zuen euskal etxeak: uda osoko barnetegia zen, Argentinan. Bi hilabete izan zirela uste dut. Ahizpak izena eman zuen. Handik itzuli eta irakasten hasi zen. Eta ikasten segitu zuen. Horrela, handik urte batzuetara, Lazkaora etorri zen 2001ean, Maizpidera. Sei hilabete egon zen bertan, eta EGA atera zuen. Gero, 2008an, beste ikastaro bat egiten hasi zen, irakasle izateko. Eusko Jaurlaritzak antolatu zuen Ikasten Plataforma zen: “Nazioarteko taldea” izan zen lehenengo, eta “Euskara Munduan”, ondoren. Ahizparen pausoen atzetik hasi nintzen ni. 2008tik 2012ra iraun zuen gure kurtsoak. Ondoren, froga egin behar izan genuen Argentinan. Uste dut lehenengo aldiz egin zela froga hori han. Frogak hona bidali zituzten, zuzendu zituzten, eta gainditu nuela esan zidaten. Eta ikastaro hori egin eta bigarren urtera.

Montevideon eta San Josen, esan duzunez...

Bai. Lau talde ditut Montevideon, bi egun, bina ordu, astean lau orduko ikastaroa dute. Niretzat, berriz, hamasei ordu dira denera. San Josen, bestalde, larunbatero ematen ditut eskolak, bi ordu eta erdikoak. Ordu eta erdiko bidea dut Montevideotik San Josera. Hur-

bil dago, guretzat. Goizeko zazpitan jaiki, zortzietan autobusa hartu, bertan lo egin, eskola eman, eta eguerdiko hamabietan buelta etxera. Euskaraz ikasi nahi duen jendea dago Uruguain. Nik, taldeetan zortziren bat ikasle ditut, esate baterako. Batzuek euskal abizenak dituzte, beste batzuek bestelako interesa dute. Batzuei arraroa iruditzen zaie hizkuntza, zaila... Batzuetan erretiratuak dira, beste batzuk lanean ari dira... Tartean, aitona-amonak ditut. Ez dute ikasteko presiorik, hobbya dute. Baina, hori bai, euskara gustatzen zaie, hori ziur! Dena dela, nik lehenengo pausoak erakusten ditut.

Unibertsitatean bada euskara ikastarorik?

Bai. Leonardo Egiazabal, Luzia Mendez eta nire ahizpa Paola izan dira irakasle unibertsitatean. EGA dute hirurek. Orain Leonardo baizik ez da ari. Hango unibertsitateak hitzarmena egin du, nonbait, Jaurlaritzarekin. Argentinan ere ari dira, adibidez. Hizkuntza irakasten dute, ez dira euskal kulturari buruzko ikastaroak.

Zergatik merezi du euskaraz ikatea Ameriketan?

Nik uste diasporak indar handia duela. Bistan da. Nahikoa da Argentinan urtero, udaberrian, azaroan, egiten den Euskal Astera joatea. Hura gauza handia da. Montevideo ez da Argentina, txikia da, han ez da hainbeste jende biltzen. Baina Euskal Astera joan eta ikaragarria da. Iaz Villa Marian izan zen. Aurtan, La Platan izango da. Aspaldi hasi ginen hara joaten dantza taldekoekin. Urte asko. Euskarazko taldearekin, berriz, duela hiru bat urte hasi ginen. Jakina, dirua izaten da hara joateko zailtasuna. Argentinan milioika dira euskal jatorrikoak.

Euskaldunak ezagutu dituzu Uruguain, Argentinan...

Brasilen ere bai. Euskal Astea antolatu zuten han ere, eta Sao Paolora joan ginen.

Micaela

"11 urte ditu nire alabak. Ez dakit euskaraz ikasiko duen, baina dantza, seguru! Euskal etxean badugu pertsona bat, Karina [Fernandez], dantza eskolak ematen dituen. Hala ere, dantza baino lehen, euskara erakusten du. Udan berriz, udalekuak izaten ditugu eta han ere euskarari lotutako ekintzak izaten ditugu. Eta han da beti Micaela, ez du hutsik egiten".

Internet bidezko euskarazko kurtsoa egin nuenean jende asko ezagutu nuen; Argentina, Txile, Kolonbia, Peru... Tartean, brasildarrak –Oskar eta Karolina, nire ikaskideak–, eta haiek gonbidatuta izan ginen Brasilen. Ez dakit bi euskal etxe ez ote dauden Brasilen. Nik Eusko-Brasilardar Etxea ezagutzen dut. Internet bidezko ikastaroaren barruan, udan hamabost eguneko barneetgia egiten genuen, eta neguan astebetekoa. Argentinara joaten ginen, baina behin Txilera ere joan ginen. Distantziak oso handiak dira han, hegazkina hartu beharra dago batetik bestera joateko. Jaurlaritzak laguntzen du, euskal etxeek ere bai, eta horrela, guk ikasi besterik ez dugu egin behar. Euskara ikasi eta irakasle izateko aukera duzu. Ondoren, zure konpromisoa da euskara irakastea, eskolak ematea.

Uruguain euskaldunari buruz galdetu eta zer erantzungo luke jendeak?

Jendeak badaki euskaldunei buruz, bai. Abizen asko hemengoak dira. Presidentea ere, Jose Mujika, hemengo da. Euskal Herrian izan zen iaz, eta bidaia horrek ere asko erakutsi zuen Uruguain.

Euskara irakasle ez ezik, eskola bateko irakasle ere bazara Montevideon.

Andereño naiz. 4 urteko haurrekin egiten dut lan. *Jardín de infantes* esaten dugu han, 3 eta 5 urte bitarteko eskola da. Egunean lau ordu egiten dut lan haur horiekin. Beste lau ordu, berriz, handik kanpo, euskara irakasten euskal etxean. Andereñoak ez du askorik irabazten. Egia esan, irakasleak du soldatarik txikienetakoa Uruguain. Hemengo jendeari arraro egiten zaio hori entzutea, baina horrela bizi gara han. Beraz, lan batekin, bakarrik, ezin da bizi han. Bi lan izan behar dituzu, gutxienez. Irakasle baldin bazara, behintzat. Badira beste lan batzuk, hobeto ordaintzen dituztenak. Eta unibertsitateko



Txuleta

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Euskara

Euskal dantzak gustatu zitzaizkion eta euskarari lotu zitzaion. Gero, Euskal Herriko lurra bera. Laster, lagunak egin zituen, lagunartea osatu zuen. Rankinga erabakitzeotan, euskara du gauza guztien gainetik. "Euskara izan beharko litzateke lehenengo", dio. Bestela izan litekeenik ere ez du ulertzen Andrea Bellak.



irakasleek ere ez pentsa, guk baino gehiago irabazten dute, baina ez askoz gehiago: sol-data txikiak dituzte.

Zertan da gizarte egoera Montevideon, zein da giroa?

Gauetz kalean ibiltzea ez zait gustatzen. Auzo gehienetan lapurretak izaten dira, eta beldurtu egiten nau horrek. Uruguai ez da Caracas, hala ere. Bestela, esango nuke Mujikaren Gobernuak pobrezia gutxitzeko lan egin duela. Diru-laguntzak eman dizkie, gizarte ekintza areagotu du... Erdi mailako klasea bere horretan dagoela esango nuke, aberatsei zerga gehiago jarri dizkiela. Jakina, hori ez zaie batzuei gustatu, baina niri Mujikak ondo egin zuela iruditzen zait: behartsuei lagundu, erdi mailakoari eutsi...

Ez duzu lehenengo bidaia Euskal Herrira.

Ez, 2001ean etorri nintzen lehenengoan, eta 2007an ere hemen izan nintzen, Eusko Jaur-laritzaren Gaztemundu programaren bitartez. Lehenengo bidaian, Korrikara etorri nintzen. Bigarreanean, Euskal Herria ezagutu nuen. Hau hirugarren aldia dut.

Korrika aitzakia etorri zinen lehenengo aldiz?

Bai. Noizean behin, hemengo irakasleak Uruguaira joaten zitzaizkigun. AEK-ko batzuk ere joan ziren hara, eta Korrikara etortzeko plana egin zuten. Azkenean, ni beste inor ez zen etorri. Ordurako, ahizpa –Paola– Maizpiden ari zen ikasten, eta bestalde, Uruguaiako lagun bat ere bagenuen Algoritzen, Parisen beste bat, Bartzelonan... Zirkuitua egin nuen. Hala ere, niri, Korrika gustatu zitzaidan, sortzen duen mugimendua. Urte hartan Gasteizen hasi zen Korrika, eta hantxe izan nintzen, eta gero herri txiki askotan ere izan nintzen, ikusten. Ibilbidea aztertzen nuen, eta ikustera joaten nintzen.

Bigarreanean, Gaztemundu izan zen arrazoi.

Bai. Astebate egin genuen Gaztemundun, eta beste bat Diasporaren Mundu Kongresuan,

Lehenengo hitza

"Hemengo lagun bat ezagutu nuen Montevideon. Euskaraz sortu zen gure harremana. Gero, nire familiarekin eta lagunekin egon ginen, eta gaztelaniaz hitz egin behar izan genuen, eta oso arraroa izan zen haren ahotsa gaztelaniaz egiten entzutea, eta berari ere berdin gertatu zitzaion, oso arraroa egin zitzaion niri gaztelaniaz egiten ikustea. Gainera, gaztelaniaz egiten dudanean asko nabaritzen zait Uruguaiako azentua".

Bilbon, *Zubigintza* zuen lelo. Horretarako, gai bat proposatu ziguten –Gazteen parte hartzea euskal etxeetan, urte hartan–, eta guk horri buruzko proiektua idatzi genuen, parte-hartzeari buruzko oharrek eginez.

Gazteen parte-hartzea –parte-hartze txikia, beharbada, edota transmisioa– da arazo?

Gurean ez, behintzat. Haize Hegoa euskal etxe berria da, eta gazteok beti ari gara parte hartzen. Denon artean egiten eta antolatzen ditugu ekintzak: dantza, euskara, hitzaldiak, udalekua... Euskal kultura zabaltzea da udalekuaren helburu inportanteena, eta horretan ari gara lanean. Euskal Herriko geografia, historia, mitologia...

Hirugarren bidaia duzu hau.

Bai. Aurreko bi bidaietan etorri nintzenean ez nekien euskaraz. Orain badakit zerbait. Lehenengo irakasle eta tutorea Maizpideko zuzendaria izan nuen, Jon Urdangarin. Dani Oiarbide ere, Maizpideko irakaslea, izan nuen... Han, astean zehar euskarazko lanak egin eta ostiralean hemengo irakasleei bidaltzen diegu egin duguna. Lan indibiduala da gehienetan, baina batzuetan lagunekin elkartzen gara eta elkarrekin praktikatzeko dugu. Han astebetean egiten dugun lana egun bakarrean egiten dugu hemen! Gainerakoan, barne-tegia dugu, urtean bi aldiz egiten dena, Montevideon, Argentinan edo Txilen. Eta hori dira beti euskarazko telebista interneten, irratia sakelakoan...

Baduzu norekin hitz egin Montevideon?

Tira, ahizparekin, Martin Zabaltza eta Karina Fernandez lagunekin... eta hemengo zenbait lagunekin Skype eta Whatsapp bidez, eta, azkena, Mintzanet bitartez. Esate baterako, euskara hitz egiteko asmotan, lagun bat egin dut Skype bidez, Anizeto izenekoa. Pantaila bidez ezagutzen dut, Mintzanet programan besterik ez, eta bidaia honetan ezagutuko dut bertatik bertara... ■



Erretretan naizenean, beltzean segi beharko dut lanean

Leonie Zunda naiz eta aurten 61 urte egingen ditut. Sortzez saratarra, Baiona dut bizileku eta bidean lau seme-alaba ukan ditut. Seme gazteenarekin naiz bizi, 13 urteko mutiko haitiarrarekin. Orain hamazazpi urte Donibane Lohitzuneko ikastolako garbitzaile eta kantineko begiralea naiz, hiru laurdeneko lanpostu batean.



LASTER erretretan izateko aukera dut; 750-800 euro jasoko ditut, bizi guzian lan egin ostean. Zalantza dut erretreta aurten hartu edo beste bi urtez lanean aritu, gero pixka bat gehiago jasotzeko. 2014an erretiratzen banaiz 750-800 euro izanen dut, baina pare bat urte gehiago lan eginda 850 eurora iritsiko nintzateke. Eta niretzat hori anitz da. Anitz da, hara eta hona kotxean joan-etorriak egin behar izaten baititut, eta 100 euro horiek gastuak egiteko izango lirateke. Bi hilabeteren buruan badut hitzordua erretreten bulegoan, eta hor galdetuko dut ea zer egin behar dudan zuzen. Badut lagun bat gaia ezagutzen duena, eta berarekin ere aztertuko dut zer den onena.

13 urteko semearekin bizi naiz orain. Haurra baitut, oraingoz ematen didate laguntza bat etxearen alokairuarentzat, hau da, 500 euro ordaintzen dut etxea eta erdia ematen didate laguntza moduan. Hori ere edozein momentutan kendu dezakete, eta 800 euroekin, laguntzarik gabe, semea eta biok mantentzea... egoera zaila litzateke. Kezkatua nintzen gaur egun pasatzen denarekin, nire beldur handia baitzen karrikan geratzea. Baina ikusten dut nire gauza txikiekin-eta, arrimatzen naizela. Xantza dut, ikastolako lanaz gain egiten baititut seilaru usteak. Ikastolako burasok anitz puska botatzeko direnak (liburuak, jantziak...) ematen dizkirate, eta ni merkatura joaten naiz saltzera; euro batean, 2 eurotan... Eta horrekin asmoa dut erretretan naizenean pixka bat aritzeko, beltzean bada ere.

Gaur egun ere gutxirekin moldatzen gara etxean. Emaus eta horrelakoetan hartzen ditugu jantziak, semearen arropa asko ere ikastolako burasok eta irakasleek eman dizkirate, ikastolako kantinean lan egiten dudanez hango janaria ekartzen ahal dut... Eta erretretan naizenean ez bagara iristen, pentsatu dut norbaitekin etxea partekatzea; baina hori azkena litzateke. Edo beharbada alokatzea ere pentsatu dut. Uda batez alokatu nuen nire etxea sosa batzuk ateratzeko eta ni lagun nire etxera joan nintzen, beraz...

Etorkizunarekin positiboa naiz. Niretzat aberastasuna osasuna da. Ohituta nago gutxirekin bizitzen, eta erretretan plus bat jasotzeko beltzean aritu behar badut, lanean arituko naiz. Bitartean, dirurik poltsikortzen ez den lan anitz dago, elkartetan eta abar. Horietan ibili izan naiz beti, eta horretan jarraituko dut, biziz, osasunak uzten didan artean.

Egoera zaila da, gazteentzat makurragoa oraino, baina alde onik badu, nolabait esateko. Ikusten da sozialki jendea ohartzen hasia dela egoeraz. Bazen garaia. Orain arte bakoitza berean ibili da, eta hori aldatzen hasi da, jendea pixka bat mintzatzen hasi da. Beharrezkoa dugu, baina, jende guztia karrikara ateratzea, oihuka. Ez dugu fitsik galtzeko, esnatu beharra daukagu, denak telebistako zozokeriei begira... Atera eta oihu egin behar dugu. ■



Naturarekin harremanean

Goiko-Lastolan (Hernani) baserri estiloko bizimodua mantentzea dute helburu, eta sagardotegia izaki, kanpotik datorrenarentzat ere irekita dago txotx garaian; aukera ematen dio naturarekin harremanetan jartzeko. Ez da etxean abere batzuk izatearen modukoa, baina ordu batzuez naturari lotzeko beta ematen dio bezeroari.

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |

EZ DA SAGARDOTEGI HANDI HORIETAKOA, ez eta betiko sagardotegi tradizionaletako bat ere. 1999an ekin zioten Goiko-Lastolan publikoari begirako lanari. Lehendik bazuten tolare zahar bat, eta bertan egiten zuten etxerako sagardoa. Inguruan sagastiak zituzten baserritar auzokideei ere beren tolarea eskaintzen zieten, etxerako euren zukua egin zezaten. Gaur egun, garai bateko itxura eta bizi estiloa mantentzen ahalegintzen dira. Bere txikian inguru zabala du sagardotegiak, eta berezitasun edo gehigarri du hori. Animaliaz, landarez, zuhaitziz josia, sarriegi ikusten ez denaz gozatzeko aukera dago. Haur zein

helduok, inguru lasaian, naturarekin galduta daukagun harremana berreskuratu dezakegu.

Sagardotegia ireki aurretik, beste proiekturik ere izan zuten. Garai batean oilategia zena eta ordurako hutsik zeukatena zalditegi bilakatu zuten. 1992. urtea zen eta kanpotik etorri zitezkeen taldeentzat, zaldi gainean ibilaldiak egiteko eskaintzari heldu zion Lazaro Etxabe Goiko-Lastolako sagardozaletak. “Ez zen izan egin dugun apusturik onena”, dio erdi barrez. Pare bat urtez iraun zuen eskaintza hark. Halere, oilategi zaharraren egitura konpondu eta txukuntzeko balio izan zien, eta urte batzuen buruan, inbertsioari etekina ateratzeko hurrengo saltoa eman zuten. Bezeroentzat ireki eta lehenengo bi urteetan, tolare zaharrarekin egin zuten sagardoa, eskuz. Ondoren, tresneria eta plangintza berria ezarri zituzten. Zalditegia izandakoa jangela bihurtu zuten: gaur egun mantentzen da eta sagardotegietan normalean ikusten ez den forma hartzen du, forma zirkularra. 25.000 litro inguru sagar zukuz beteriko upelek borobilean jarritako mahaien babesean geratzen dira, erdialdean. Txotx denboraldirako erabiltzen dute sagardo gehiena, eta botilaratutakoa partikularrei eta elkarteei baino ez diete saltzen, ez dute botila merkaturatzen.

Eskaintza familiarra

Familiarekin eta hurrekin joateko Goiko-Lastolaren (943 553272) antzeko eskaintza egiten duten beste sagardotegiak hauek dira:

- Laka-Erdi sagardotegia (Berritxu, Bizkaia). 608 673 208
- Astiazaran sagardotegia (Zubieta, Gipuzkoa). 943 36 12 29
- Elutxeta sagardotegia (Urnietia, Gipuzkoa). 943 55 69 81
- Kalonge sagardotegia (Igeldo, Gipuzkoa). 943 21 32 51
- Petritegi sagardotegia (Astigarraga, Gipuzkoa). 943 45 71 88
- Oiharte sagardotegia (Zerain, Gipuzkoa). 943 50 10 13
- Ola sagardotegia (Irun, Gipuzkoa). 943 62 31 30

Animaliekiko zaletasuna

Beti eduki du animaliekin harremana Lazaro Etxabek. Goiko-Lastolan jaioa, txikitatik du animalia eta naturarekiko lotura eta harremana errotua. Gaur egun behi bat, oiloak, ahuntza eta txakurra ditu. Astoa ere izan zuen bi urtez, baina sagarrondoetan kalte batzuk eragiten zituela-eta, anaiari eman behar izan zion, beste leku batera eramateko. Artalderik ez badute ere, ondoko baserritarrarena etxe ondoko hesolaz bes-



Hurrekin joateko leku aproposa da Goiko-Lastola. Animaliaz, landarez, zuhaitziz josia, sarriegi ikusten ez denaz gozatzeko aukera ematen du.

talde geratzen zaie. Lazarok ondo asko eza gutzen du abere horiek ematen duten lana, eta ez du beste munduko ezer ateratzeko egiten, afizioz baizik. Hori bai, Goiko-Lastolan ez da faltako etxeko arrautzarik eta oilaskorik, eta urtean behin behiak egindako txekorraren haragia ere badaukate. “Ederra da etxean hazitakoen produktuak jan ahal izatea; badakigu zer ematen diogun eta zer jaten ari garen, eta hori gaur egun ez da hain erraza”, dio.

Errekaz bestalde geratzen dira Hernanitik Ereñozura bidean dauden fabrikak, baina suertez, gertu izanda ere ez dituzte ikusten. Horren ordez etxe atariko belar meta eta baratzea dauzkate paisai. Ortuarekin laguntzera jubilatuta dagoen herriko lagun bat etortzen zaie, eta “hark mantentzen du txukun”, dio Lazarok. Ziklo baten modura definitu du behiaren, zelaiaren eta baratzearen arteko lotura. Behiari egunero inguruetakoa belarrak moztu eta ematen dizkio jaten, horrela batetik animalia otordua eman eta beste aldetik inguruak garbitzen laguntzen dio. Horrez gain, aberearen gorotza erabiltzen du baratzean abonatu moduan, lurra indartzeko. Eta baratzetik ateratako produktuetatik sobratutako hondakinekin egindako konpostetik ere ateratzen du bere partea lurrak, gorotzaren tankerara.

Etxekoek aldatu eta ereiten dituzte gauzak, baina ondoren lagunak mantentzen du baratzea. Sagardotegiari begira ere aldatzen dute zertxobait. Bakailao tortillari botatzeko porrua erabiltzen dutenez, urtekoa ondo

atera bada etxeko porruak baliatzen dituzte. Ez hori bakarrik, sagardotegi inguruan daukaten hurritzak emandako hurrak ere jartzen dituzte postrean.

Sagardotegia ireki berria zen lehen urteetan kanpotik ekarritako sagarrarekin aritu ziren lanean, baina gaur etxeko edo inguruko sagarrarekin egindako zukua erabiltzen dutela azpimarratu du Lazarok. Eta azaldu du baita ere, euren sagardotegira aurretik abisatuz gero janaria eramaterik badela, eta bertakoa probatzera joaten direnek ere ez dutela zertan sagardotegiko menua bezala ezagutzen den guztia jan behar. Beti hala egin izan dutela dio, baina garaia ikusita askotan jendeari gogoraraztea ondo etortzen dela, menuan dagoenetik nahi dutena jan deza-ketela. ■



GOIKO LASTOLA sagardotegia



EREÑOTZU AUZOA, 89
TEL. 943 55 32 72
HERNANI



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

Abortua, duintasuna eta askatasuna

JUSTIZIA MINISTROA eta Espainiako Gobernua ari dira Abortuaren Legea delakoaren aldaketa sakona sustatzen. Horrela azaldu du, behintzat, Gobernuako presidentek berak aurreproiektu hori publikoki babestu duenean. Bada, ezagutzen den egitasmo horren arabera, 2010ean onartu zen Legeak ezarri zuen epe sistema bertan behera utzi nahi dute. Erreformat 1985eko Legea baino murriztaileagoa da, atzerago eramaten gaitu, fetuaren malformazioak kanpoan uzten baitira. Argi dago proposatzen den erregulazio horrekin Europako herrialde gehienetan indarrean dauden araudietatik aldenduko garela.

Proposatzen den aurreproiektuaren ikuspuntua kezkarria da benetan: emakumeok babesa, laguntza eta aholku bereziak behar ditugulakoan dago; emakumeok gure amatasunaz eta gure nortasunaren garapen libreaz erabakiak hartzeko ezgaitzat hartzen gaitu

Printzipioz, edozein arau aldatu nahi denean, aurrekoak azaldu dituen disfuntzioak, zailtasunak eta oztupoak aztertu behar dira, erreforma beharrezkoa den ala ez neurtu eta, hala balitz, erreformat nondik nora joan behar duen erabaki ahal izateko. Hau guztiz zentzuzkoa bada ere, kasu honetan ez da horrelakorik egin, ez orain arte, behintzat. Aldiz, ez da arrazoi-tzen erreformaren beharra, oraindik indarrean dagoen Legea eta gizartearen errealitatea bat datozelako eta inolako gatazka edo arazorik sortu ez delako azken hiru urteetan. Zerbait aipatzeagatik, aurreproiektuan aipatzen da Konstituzio Auzitegiaren doktrinari egokitzeko beharra, baina, egia esateko, Auzitegi horrek ez du inoiz Konstituzioaren kontraketatzat jo epe sistema. Alderantziz, Alderdi Popularrak 2010eko Legearen aurka aurkeztu zuen konstituziokontarakotasun-errekurtsuaren ebazpenaren zain gaude. Gainera, Auzite-

giak errepikatu duenez, jaiotzeko dagoe-nak babesa merezi du Konstituzioaren arabera, baina ez da eskubideen jabe. Aldiz, emakumeok oinarritzko eskubideen jabe garenaz, epe sistemak bermatzen du babes orekatua umekiaren eta emakumez-koon eskubideen artean.

Proposatzen den aurreproiektuaren ikuspuntua kezkarria da benetan: emakumeok babesa, laguntza eta aholku bereziak behar ditugulakoan dago; emakumeok gure amatasunaz eta gure nortasunaren garapen libreaz erabakiak hartzeko ezgaitzat hartzen gaitu. Gobernuaren ikuspegitik emakumeok biktima hutsak gara eta, horren ondorioz, ez gaitu hartzen abortuaren delituaren egiletzat. Ez dut esango delitugiletzat tratatzea nahi dudala, baina adibide horrek oso ondo islatzen du Gobernuaren ikuspegia.

Bestalde, ez dago ukatzerik erreformaren ondorioak oso larriak izango direla. Alde batetik, aurreikusten diren eskakizun formalek oso zaila egingo dute edozein erabaki garaiz hartzea; bestetik, zaila izango da baita ere, osasun zerbitzuetako pertsonalak horrelako arriskuak bere gain hartzea.

Baina ez dira hor bukatzen erreforma horrek ekarri ditzakeen zorigaitzak. Garai hauetan bereziki, argi dago bere ondorio-rik nabarmenetariko bat haxe izango dela: desberdintasun sozialak areagotu egingo direla eta bitarteko ekonomikorik ez duten emakumeek abortatu beharko dutela ondorio larrien arriskupean. Gainera, aurreproiektuaren injustizia soziala sakonagoa da, fetuaren malformazioen kasua ukatzen denean, eta aldi berean, mendekotasun laguntzak murrizten edo kentzen direnean.

Arazo eta helburu pertsonalak eta politikoak at utzirik –nahiz eta erabakigarriak diren gai horretan–, argi dago erreforma horren oinarrian erlijio zehatz baten sinis-menak daudela eta denoi inposatu nahi dizkigutela. Estatu eta gizarte aske eta demokratiko batean inposaketa hori eta emakumeon askatasunaren murrizketa guztiz onartezinak dira. ■





Anuntxi Arana

ANTROPOLOGOA ♦



GAIZKA IROZ

Orratzak

DIFERENTEA BAINA EZ BAKARRA, Espainia, abortatzeko eskubideari trabak ezartzen. AEBetan, Polonian, Suitzan... ere oztupoak hazten. Irlandan, hobekuntza ñimiñoa sartu dute abortua debekatzeko duen legean, neska bat septizemiarekin hil ondoren. EBN sexu eta ugalketarako eskubideak bermatu nahi zituen Edite Estrelaren txostena egotzi du berrikitan Estrasburgoko Parlamentuak, eskumenak estatu bakoitzaren esku utziz.

Aurrerapenak ere egiten dira. Frantziako Estatuan, engoitik, abortua egin ahal izateko ez da beharrezkoa larritasun egoeraz hel egitea. Haatik, bertako feministek badakite lortu direnak oso erraz galtzen direla eta, hori gabe ere, oraingo egoera ez dela bikaina. *Planning familial*-ek gogorarazi du leku zenbaitetan konplikatu izan daitekeela abortatzea zentroen eskasiagatik, gainera haietarik batzuk ixten ari direla azken denbora hauetan, Italian legez. Emazteen eskubideen aldeko kolektiboak (*Collectif national pour les droits des femmes*), Espainian pentsa ezina zen atzerapausoa deitoratzearekin batera, ohartarazi du Frantzia ere ez dela holako arriskuetatik kanpo, homosexualen ezkontzen aurkako manifestazioetan ageri diren indar atzerakoiak indartsuak baitira.

Ez da esana Gallardonek bere legea erraz esportatuko duela. Frantziako Gobernuaren bozeramaileak, Vallaud-Belkacem andereak, berehala adierazi zion gaitzespena

Baiki. Azken aste hauetan eskola publikoari eraso zaizkie “genero teoria” erakusten duelakoan. Manifestazio jendetsuak egiten dituzte, besteak beste abortuaren aurkako bat Parisen, zenbaitek arrosarioa eskuan zutela –Antsoaingo klinika aurrean bezala– eta hantxe zen Baionako apezpikua, holakoetan aditua: iazko azaroan ere Washingtonen ageri zen, txapela jantzita, abortuak egiten dituen zentro baten aurrean otoitzen, *For life* mugimenduko kideekin.

Hala ere, ez da esana Gallardonek bere legea erraz esportatuko duela. Frantziako Gobernuaren bozeramaileak, Vallaud-Belkacem andereak, berehala adierazi zion gaitzespena, eta gero elkarren segidan etorri dira ihardukitzeak, Espainiako emazteentzako elkartasun mezuak: urtarilean manifestazioak Marseillan, Okzitaniako Tolosan, Bordelen eta Nantes-en; otsailaren 1ean Europako hiriburu askotan, Parisen eta beste hogeita hamar bat hiritan. Pankartetan galtzorrazak ageri dira berriaz, etxeko abortu klandestinoetako tresna septizemikoak, eta haien azpian idatzia: “Sekula ez gehiago holakorik!” Ba, arrosario-aleak ereinda galtzorrazak hozitzen badira, birziklatu beharko da antzina-ko slogan zaharra: “*Aparten els vostres rosaris dels nostres ovaris*”. ■



DANI BLANCO



Amets Arzallus



BERTSOLARIA

Gure andereñoak

“KULUNKA ari den sehaskari”, bertsoetarako gai zaharra dirudi eta tai gabe berri-zen ari da suprefeta. Zazpi aldiz kantatuko nion aurten, idatzi, mintzatu, eta hala ere ez da aski. Herritik urrun harapatu nau auzi berri zaharrak, gure herritik zazpi hizkuntzatarako distantzian bai guttienez. Eta perspektiba bitxi horretatik gure andereño izanikoeekin oroitu naiz, eta ene kaiera zahar batean horiei idatziriko hitz batzuekin.

Ikastolan gu euskaratik gentozela erakutsi ziguten, baina euskara nondik zetorren ez genekielako. Hipotesietako bat zen

Afrika iparraldeko amazigharekin zuen ahaidetasuna. Amazigh hitzak “gizon librea” esan nahi omen du, eta amazighek beren hizkuntzari “tamazight” esaten diote, forma femeninoa emanez esapidari, hizkuntza beraz, emakume libre bat da. Euskarak ez du femininorik eta maskulinorik bereizten hitzen azaleran, baina gure ikastola andereñoak bete zegoen. Eta nik bizitza osoan maiteko ditut gure andereño izan ziren haiek, ama hizkuntza bat balitz bezala erakutsi zigutelako libertatea. ■





Iván Giménez

♦ KAZETARIA

Gaurko memoria historikoa: izen-abizenen faltan

NAFARTASUNAK hainbat osagarri izan ditzake, baina badira bi inork kolokan jartzen ez dituenak, gatazkarik sortzen ez dutenak, Gabonetako senide afariak porrotera bidaltzen ez dituztenak. Denon bihotzetan daude, ez bairik gabe: Sanferminak eta Osasuna. Gainontzeko guztia eztabaidagarria da, baina Sanferminak eta Osasuna (arraro batzuen gustuko ez badira ere) nafartasunaren gakoak bezala ikusten ditugu: bai abertzaleak bai espainolistak, Mendikoak zein Erriberakoak; ezkertiarrek edo eskuindarrak.

Hala ere, Sanferminen eta Osasunaren historia krimen politikoen historia da. Gaur egun denok zuriz janzten gara Txupinazora joateko, ohitura hori erailketa batzuen gainean idatzita dagoela susmatu gabe. La Veta penaren kideak hasi ziren zuriz janzten, baina horietako batzuk Gerra Zibila hasi bezain laster fusilatu zituzten errepublikarrak izateagatik. Haien artean, José Zapatero, Jarauta kaleko gaztea: 1936ko abuztuaren 23an Bardeetako Valcarderako triskantzian akabatu zuten, beste 52 lagunekin batera.

Udal plazara iritsita, Txupinazoa, tradizio jendetsu eta alai hori, beste erailketa baten gainean oinarritu zela jakin behar da. Juanito Etxeparek, Kale Nagusiko tabako-dendariak, ezin zuen imajinatu zein oihartzun sortu behar zuen bere *inbento* xume horrek: suziri batzuk aire-ra botatzea Sanferminak hasi direla berri emateko. 1931n hasi zen horretan eta Gerra Zibilera arte segitu zuen ohitura berriarekin. 1936ko uztailaren 6tik egun

gutxira, fusilatu egin zuten, errepublikarra izateagatik. Krimena ez zen horretan gelditu: 1940tik aurrera frankismoak Txupinazoa ofizializatu zuen, izen handiko bi iruinsemeen eskutik: Jokintxo Ilundain eta José María Pérez Salazar, biak falangistak eta kazetariak *Arriba España* egunkarian. Historia ofizialaren arabera, hauek dira txupinazoaren asmatzaileak, eta horrela irakur dezakegu Iruñeko udalaren webgunean. Krimenak irautean du, nolabait.

Eta Osasuna? Nafarroan izena euskaraz duen erakunderik garrantzitsuenak da, *Salud* izena inposatuko diguten arte, bederen. 1920an, Sportiva eta New Club Iruñeko taldeak batzerakotan, izen berri bat asmatzeko beharra sortu zen. Talde horren agintari bati, Eladio Zilbetiri, Osasuna bururatu zitzaion, oso modu arrakastatsuan. Kontua da Zilbeti EAE-ANV alderdi politikoko kidea zela eta bere bizitzarekin ordaindu zuen militantzia hori: 1937an, Etxauri aldean fusilatu zuten.

Sanferminen eta Osasunaren historia krimenetan oinarriturik izanda ere, Gerra Zibileko irabazleen oinordekoen ikurrak dira —gainontzeko nafarren ikurrak diren neurrian, gutxienez—, inolako eztabaida publikorik sortu gabe. Agian, memoria historikoa lantzeaz gain, gaurko memoria kolokan jarri beharko da, izen-abizenekin. Eta beste baterako geratuko da errepre-sioari esker pilatutako botere ekonomikoak, gaur arte luzatu dena betikoen mesedetan. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Sagardotegi boladan jarriak



XDZ

Agin Laburu

♦

Doinua: Espainian behera.

Hau Segin, hau Herriran ta beste hau ETAn... aspalditik ohituak aldapa lauetan. Ta gu Astigarragan, gure arauetan: koadrilak egunez ta koadrilak gauetan, txinparta baten bila garai zail hauetan.

Lehendabiziko txotxa egin ta segitun, legerik eza denez hamaikaren itun nik sarri galdetzen det: “hola zergatik hun?”. Inguru hontan soilik al gara jakitun txinparta horrek zenbat su eragin ditun?

Basoak hautsi dira mila bider ia, komona non dagoen ezin igerria... jende ausartez bete zaigu hilerria. Nahiz ta txotxari esker bizi den herria gauza guztien gisan, badauka neurria. ■



Patxi Zabaleta

♦ ARALARREKO KOORDINATZAILEA



DANI BLANCO

Euskal lurraldetasuna eta Nafarroako aldaketa politikoa

NAFARROAN ALDAKETA politikoaren premia sakonki sentitzen den gauza da. Hainbat eta hainbat ordezkari politikok ia egunero jakitera ematen dutena kontuan hartzea nahikoa da errealitate horretaz jabetzeko. Herritarrek kalean egunero azaltzen dute aldaketaren kezka, batzuetan itxaropenaz, besteetan etsipenaz.

Nafarroako indar politiko abertzaleak eta ezkertiarak izan gara, salbuespenik gabe, aldaketaren alde gehienik azaldu garenak. Aldaketa politiko hori bilakatu da oposizioko indar politiko guztion helburua eta xedea.

2007an izan zen Nafarroako aldaketa politikorako egiazko azken aukera. Nafarroa Bai (NaBai) bigarren indarra gertatu zen urte hartako hauteskunde foraletan. Lehen aldia zen indar politiko abertzale batek maila hori lortzen zuela Nafarroan eta aha-legin guztiak egin genituen, PSNri presidente kargua bermatzea eta guzti. Bazirudien posibilitateak zeudela. Areago oraindik, 2007ko martxoan bertan, beraz hauteskundeak baino bi hilabete lehenago zehazki, estatu guztiko eskuinak manifestaldi bortitza egin zuen Espainiako presidente zen Zapateroren aurka.

Gobernuarekin negoziatu genuen eta oinarritzko adostasunak hitzartua ziruditenean, PSOEek atzera egin zuen. Zergatik? Nafarroa estatu gakoa delako; estatu arazo, alegia.

Iazko martxoan berdin gertatu zen. Alderdi sozialista behin eta berriro Yolanda Barcinaren dimisioa eskatzen ari zenean, EH Bildu-Nafarroak zentsura mozioa aurkeztu zuen eta alderdi sozialistak ez zuen babestu.

Baina, aipatutako guztiaren azpitik eta gainetik, jarrera zehatz bat nagusitu da Nafarroako politikan eta gizartean, haxe: aldaketa deitutakoa behar dela lehenik. Zorionez aldaketa haxe da euskal lurraldetasunerako bide ibilgarri bakarra.

EAEren eta Nafarroaren arteko banaketa ez zuen Konstituzioak edo autonomiak eragin, mendeak eta mendeak lehenago eman zen, nahiz eta 1976-77an beste jokabide batzuk landu zitezkeen.

Gaur egun bi estatutuak, bai Gernikako Estatutua nola Nafarroako Foru Hobekuntza zaharkituta daude. Bi estatutu hauek eguneratzeak, onargarria izatekotan, nahitaezko baldintza bat bete behar du: erabaki eskubidea jasorik edukitzea, hain zuzen ere.

Beraz, Nafarroako aldaketa politikoaren aldarria hain orokorki onartzeak norabide egokian kokatzen du euskal lurraldetasunaren erronka politikoa. Bide politikoetatik irabaziko da lurraldetasuna eta horren lehen urratsa Nafarroako aldaketa politikoa da. ■

Jarrera zehatz bat nagusitu da Nafarroako politikan eta gizartean, haxe: aldaketa deitutakoa behar dela lehenik. Zorionez aldaketa haxe da euskal lurraldetasunerako bide ibilgarri bakarra



TXIRRI TA SEGU RU
ETORRI KO LITZATEKEELA
KUADRILLA ARTEKORA



otsailak 18-apirilak 5

www.bertsozale.com/araba


«Nafarroako Erresuma gure nahi eta ezinen metafora da»

(Iruñea, 1960) *Erresuma eta fedea* trilogiari errematea eman dio Gure Jerusalem galdua nobela amaituta. Ez du lan historiko soila idatzi horregatik. Egile nobela ere bada obra itzel hau: “Nire eredua ez da historia nobela klasikoa idaztea, Marguerite Yourcenar edo Alejo Carpentierren eredua da, baina ni ez naiz bata ez bestea. Noski, gustatuko litzaidake pitin bat haien lanei hurbiltzea”, erran digu apal.

| MIKEL ASURMENDI |
Argazkiak: Josu Santesteban



ERRESUMA ETA FEDEA trilogiaren titulua hizpide izan dugu. Iraganeko eta oraineko hainbat kontuen paralelismoa egitea dago eta. *Independentzia eta sozialismoa* irakurri liteke, adibidez: “Bai, badago joko eta paralelismo hori, batzuetan nahita eta bestetan oharkabea. Errate baterako, nire bigarren irakurketan lehen idazketan jabetu ez naizen bertze

gauza asko ikusten dut. Idazketa kontrolatzea izugarritzko lana da, gauza asko kontrolaezina dira. Trilogia batean idazleari inposatzen zaizkion berezko indar logikoak agertzen dira. Kasu honetan Aingeruri inposatu zaizkio. Batzuetan jabetu naiz idazten ari zen hori ez nintzela ni, bertze norbait ari zena haritik tiraka, uztarrian aritu dena Aingerurekin”.

Rock'n' roll nobela (2000) garaikidearen ondoren, *Erresuma eta fedea* trilogian abiatu zinen. Nork bere buruan sano sinetsi behar du, gero!

Ez dakit sinesmen kontua ote den, baina bai, apustu gogorra egin nion nire buruari. Hala ere, bitxia da, hasieratik hartu nion neurria lanari, banekien lanak zer neurri izango zuen gutxi gorabehera. Aurreko nobeletan xehetasun gutxiago aurreikusita izaten nuen. Maparik gabe abiatu izaten nintzen, tartean zer izanen zen jakin gabe. Honetan, aldiz, mapa neukan. Noski, xedea edo amaiera ikusi gabe ez naiz behin ere abiatu, eta honetan banekien non ziren mendi lepoak, non ordokiak, non maldak, baita azkeneko bizkarra ere nolakoa izanen zen. Batez ere, denbora zenbategia izango zen barneratu nuen. Istoria paperean zirriborratzen hasi eta gertakari nagusiak ikusi nituen. Egia ere bada... zortzihamar urteko lana izanen zela ikusirik, nolabait beldurto nintzen.

Hala ere, aitzina. Zerk akuilaturik? Zergatik?

Nafarroako Konkistaren *revival* moduko bat bizi izan zen orain hamar urte. Lehenbiziko historia liburuak plazaratzen hasi ziren, baita eztabaidak ere lantzen historia zaleen artean. Gainera, niretako deigarria izan zen historia liburuak neurri batean “militanteak” izatea. Historia aztertzen zuten, baina ez historia jakin-nahi hutsez, ispilu bat ari zitzaigun proposatzen, egungo errealitatea interpretatzeko ispilua. Kitzikagarria egin zitzaidan. Ni ez naiz historialaria, historia zalea bai ordea. Kaleratu ziren liburuak eta eztabaida haiek asko lagundu zidaten lanean abiatzeko.

Lan itzela egin duzu pertsona historikoen ezaugarriak, aiurriak eta izaerak fikzionatzeko.

Arestian aipatua oso lagungarria izanik ere, trilogia honen nahia duela 20 urte sortu zitzaidan, Nafarroako Henrike III.a erregearen biografia irakurri nuenean. François Bayrouk idatzia [MoDem alderdi frantsesaren presidente biarnesa]. Kuriosa, ezta? Miarritzen aurkitu nuen liburua, eta harriduraz hartu ere: “Bayrouk idatzia!”. Horrek beste biografia batzuk irakurtzera bultzatu ninduen. Harritu nintzen! Henrike III.a Nafarroako Errege ezagunena da Europan, 150 biografia daude idatzita. Frantziako lehen mailako pertsonaia historikotzat daukate eta zernahi pertsonaia diferente eraiki dituzten pertsona beraren inguruan. Bi biografia irakurri eta pertsona diferentez ari zirela iruditu zitzaidan. Beraz, trilogia hasi nintzenerako garai hartako irakurketa handia eginga neukan. Bistan da, histo-

ria liburuak ez dizute erraten orduko pertsonak nolakoak ziren. Beraz, pertsonen ideiak eta izaerak euren egitate historikoetatik atera ditut pertsonaiak eraikitzeko. Adibidez, jende basa eta primarioa zen, azpi-azpian zeudenak eta nobleak ere primarioak ziren.

Historia nobelak ongi hartzen dira, baina maila apalekotzat ere joak dira literaturan. Historian barneratzea egokia al da literatura egiteko?

Aukera bat da. Historiarekin “jolasteak” badi-tu bere erregelak: noraino txertatu dezakezu fikzioa une historiko batean? Lehen erregela momentu historikoa errespetatzea da. Ezin ditzakezu zure obsesioak eta aurre-juzkuak txertatu. Ezin daiteke XXI. mendeko pertsonaia bat garai historiko batera eramanez. Horregatik ez dute nobela historiko batzuek funtzionatzen. Nik sinesten dudana literatura ez da libretimendu eta denbora pasa hutserako, zer-bait adierazi behar du. Hori lortzeko oso fidelak izan behar duzu idazlanera eramanez nahi duzunarekin, aldi berean, horrek zure garaia- ren ispilu izan behar du nolabait.

Zure lanean orduko politikarien ezaugarriak gaurkoen ispilu dira, edo gaurkoak ordukoena.

Beno... [eskertu ditu hitzok]. Alde batetik horrek balio digu zein urrutia dauden ikusteko eta aldi berean orduko pertsonaien pentsamoldeak zein egungoak diren. Badute puntu arrotz bat, hala ere. Irakurle- ren batek erran dit: “Zein zaila zai-

dan pertsonaia horien buruetan sartzea, erlijioarekiko fede hori...”. Baina, fedearekiko erlijioak erlijio, noraino gaude hain urrutia. Bertze batzuek erran didate: “Zein iluna den Iruñea!”. Gaurko Iruñea ez da liburuakoa bezain iluna, ados. Baina gu hain diferenteak al gara?

Joanes Mailuren bizitza da trilogiaren ardatza.

Bai. Bera da pertsonaia zentrala, batez ere bigarren liburuan. *Izan bainintzen Nafarroako errege* liburuaren izena berari dagokio. Bastarta zen, hala ere, hainbat eskubide aldarrikatzen ditu, bastartasuna batez ere lehen liburuan landu nuen. Irakurritako biografiek marrazten dizute nolabait pertsonaia. Baina bera ez da pertsonaia zailena. Bera nolakoa zen gutxi gorabehera jakin dezakegu, baina nolakoa zen zapatak janzten zizkiona, nolako arkabuzaria edo bere maitalearekin zegoen bitartean ate ondoan zaindari zuena? Historialariren batek erran dit: “Orduko jendea ez zen halakoa”. Bai. Noski, norberak pertsonaiak eraiki ahal ditu imajinatzen dituen heinean.

“Joanes Mailu bastarta da, baina denak gara bastartak. Guretariko edonor ez ginen arrunt diferenteak izanen garai hartan. Bastartasun hori harro eraman behar dugu”



Hori pertsonaia! Egon al dira bere modukorik historian?

Bai. Irakurle batek erran zidan: “Ez ote zaio gauza gehiegi gertatzen?”. “Irakurri Henrike III.aren biografia”, erran nion. Ikaragarria da. Zenbat gauza geratu zitzaion bizitzan. 56 urtez bizi izan zen, eta zenbat gauza bizi izan zuen. Hainbat erregeren biografiak irakurtzen dituzu, eta 30 urte bete orduko sekulako gizon boteretsuak ziren eta gero bertze hamaika bizipen izaten zituzten. Halaber, Joanes Mailu bastarta da, baina denak gara bastartak. Guretariko edonor ez ginen arrunt diferenteak izanen garai hartan. Bastartasun hori harro eraman behar dugu, inor ez da odol garbikoa, gainera, ez dugu odol garbikoak izan behar. Nik ez dut nahi behintzat.

“Historia irakurrita, garbi dago Nafarroako Erresumak ez zuela etorkizunik” erran zenuen *Joanes Mailu* nobela publikatu ostean.

[Berrian] egindako elkarrizketan erran nuen eta egurra eman zidaten. “Nafarroako Erresumak ez zuen eskubiderik?”, erran zidaten. “Ni ez naiz eskubideez ari”. Batzuek Nafarroak “izan beharra” historiarekin nahasten dute. Nik ez dut eskubide kontuez idatzi, historia kontatu dut fikzio bidez. Gatozen gaur egunera, geopolitikari begiratu, bi mende luze da Frantziaren eta Espainiaren talkaren artean bizi garela. Orduko nafarrak ongi ateratzea zaila zen eta “gu” ondorioz, egun, Europan egokitzea ere bai. Demagun Andorrari gertatu zitzaiona guri gertatzea. Hau da, bi erresuma handiek lur

“Trilogia honen nahia duela 20 urte sortu zitzaidan, Nafarroako Henrike III.a erregearen biografia irakurri nuenean. François Bayrouk idatzia. Kuriosa ezta? Miarritzen aurkitu nuen liburua, eta harriduraz hartu ere: Bayrouk idatzial!”.

puska horretaz ahaztu ziren bezala gutaz ahaztea. Baina Nafarroako Erresuma handiegia eta oso inportantea zen hemengo jendeak ahanzteko. Gure bortuak –pasabideak– bi aldeen arteko harremanetan zailak ziren, eta halaber, berealdikoak ziren bi erresuma handien etorkizunerako eta interesetarako.

Orduko egoera soziopolitikoa gaur egunera ekartzeko joera izaten da, aise ekarri ere.

Nafarroako Erresumaren zilegitasunaren eztabaida dago. Eta interesgarria da lehenago egoera nolakoa zen. Diferentea zen, eta oraingoa ere halaxe da. Historia ez da gerora gertatuko denaren gainean idazten: izan ginea eta garena diferente da. Historiak buelta handiak ematen ditu eta etorkizunean egoerak ere alda daitezke. Gogoeta hori interesgarria egiten zait. Baina orduko Erresuma orainera ekarri eta egun gorpuztea berez... Orduko estatuak ikaragarri *likidoak* ziren, garai hartako begietatik gaurko egoera begiratzea ez da egokia.

Nafarroa hura estatu izatera iritsi izan balitz, nola irudikatuko zenuke?

Erresuma hark iraun izan balu, zer-nolako herentzia hartuko genukeen? Nire irudiko, zeharo harrituko ginen. Oso erresuma erdalduna izango ginen, euskara oso zokoratuta egonen zen. Asiskok *Gartxot* lanaren harian dioenez, konkistaren antzinako konkistan, erdalduntasuna arrunt sartuta zegoen goimailako noblezian. Horretan ez dago, adibi-



dez, diferentziarik agaramontarrak eta beaundarren artean. Nafarroako Erresuma gure nahien eta ezinen metafora da.

Iragan galduaren menturan ote gabiltza?

Gure iragana ez dago inork konponduko duenik, iragan tristea dugu, ez dugu iragan distiratsurik. Jendeak harrotu beharra dauka, eta ulertzen dut. Gure iragan tristeaz harro egon behar dugula diot niok. Harro egotekotan. Gure iragana hori da. Eta zer? Badugu zer ikasia. Nik uste, gurea ez da orduko hartara joateko eredugarria, baizik handik urruntzeko, gure historiak akuilua izan behar du garena edota izan nahi duguna izateko.

Gure Jerusalem galdua nobelan Pedro Agerre Axular dago. Ezaguna al da?

Eguno begietatik idazle kanonikoa da, klasikorik hoberena, aipatuena, laudatuena. Bertzerik da, herri jakintzak nola hartu duen Axularren figura? Haren gaineko kontakizun herrikoi klasikoak... [urruma gisako bat egin du] jakinduriak janzten ditu herri xeheak, eta jakinduriak janzteagatik deabrukeriaz ere bai. Hau da, herri xehearendako aunitz jakitea ez da gauza ona. Horixe duzu ene ikaspena. Axular gure idazle klasiko laudatuena da, baina haren gainean deus gutxi dakigu. Luis Villasantek Axularren liburuxka idatzi zuen, baina datu biografikoez hiru orrialde betetzen dituzte. Gainera, datu horien egiazkotasuna eztabaidatua izan da. Beraz, badakigu non eta noiz sortu zen, noiz ordenatu zuten, noiz ailegatu zen Iparraldera. Noiz argitaratu

“Erresuma hark iraun izan balu, zer-nolako herentzia hartuko genukeen? Nire irudiko, zeharo harrituko ginen. Oso erresuma erdalduna izango ginen. Erresuma horretan euskara oso zokoratuta egonen zen”.

zuen *Gero* liburua eta noiz hil zen. Baina, zer dakigu bere izaeraz?

Zaila da pertsona historikoen izaera osatzea.

Axularren testuinguru politiko sozial historikoa ezaguna da, baina bere biografia badiu alderdi harrigarri batzuk, beraiek argituko lizkiguketen datuak ez dauzkagu. Nik Axular bat asmatu dut, nire Axular. Ausart izan daiteke nirea eta probokaziotik ere badu. Baina, hori denek egiten dute. “Ez ote zen espainolen agentea izan”, pentsu dut. Agente ultrakatolikoa zela dudarik ez dago. Iparraldeko ultrakatoliko guztiek espainiarrekin harreman estuak zituzten. Zenbat diru bide-

ratzen zen Iruñetik Donibane Garazi, Donapaleu edota Ezpeletako noblei? Espainiarrek ezkutu bat eratua zuten haien bitartez. Axular tartean zebilen, agente ideologikoa zelakoan nago, ideia baten propaganda egilea. Tira, nik joko bat egin nahi izan dut, nire Axular proposatu dut. Sinesgarria ote? Batzuek ez dute sinetsiko. Baten batek erran dit: “Zuk halako pertsonaia asmatu duzu eta sinetsi duzu horrela zela”. Bada, bai.

Erabili duzun hizkuntza eredua da, nire gustuko.

Bertze batzuei aldiz irentsi ezina egin zaie. Ni oso kontzientea naiz hizkuntza eredu horrekin mugak jartzen dizkiodala nire irakurlegoari, murrizten dudala. Nire apustua da, liburu hauek hizkera hori behar dutelako.

1.000 orrialde idatzi dituzu. Egungo mundutik isolatu eta historia tamaina horretan fikzionalitatea ere. Ez duzu meritua makala. Bejondeizula.

Bai, lana dago, ordu asko sartu dut. Badauk gaitasuna deskonektatzeko, batzuetan gehiegizkoa ere, ingurukoek erran dezakete hori. Egia da, horrelako uneak bizitzeak badiu bere koskak, arazoak ingurukoekin. Hamar urtez ez dut nire itzultzaile lana utzi. Arratsaldeetako idazlea naiz, asteburuetakoa batez ere. Gauez aritzen naiz, goizaldera arteko saioak eginez. Aitor dezaket: lehertuta bukatu dut, eta psikologikoki ukitua, nire osasunaren zati bat ere utzi dut. Nire gorputzez eta arimaz aritu naizela erratea ez da metafora. ■



Arte eszenikoak Gasteizen, erein eta jaso

Unai eta Garazi Lopez de Armentia neba-arrebek arte eszenikoen gaineko ikasketak egin zituzten Euskal Herritik kanpo. Sorterrira itzuli eta bertan jarduteko, elkarrekin lan egitea erabaki zuten. Proiektuak urte eta erdi badu ere, abenduan zabaldu zizkioten Baratza aretoko ateak publikoari. Bertako antzerki eta dantza garaikide taldeek euren lanak erakustea, ikertzea eta garatzeko tresna izatea lukete helburu.

| MYRIAM GARZIA |

“ARANTZABELA IKASTOLAN ikasi genuen eta bertako jolas-tokiari baratza deitzen genion”, dio Garazi Lopez de Armentia aretoko sortzaile eta kudeatzaileak. “Jolasteko lekua da beraz Baratza, horrela ulertzen dugulako gure lana. Baina jolasa, haurrek egiten duten moduan ulertua, eroriz eta altxatuz, gauzei mamia atera arte”.

Baratzan arte eszenikoen ikerketa dute xede nagusia, prozesua, eta kooperatiba moduan antolatuta daude. Neba-arrebek ez ezik Jemima Cano aholkulariak ere garrantzi handia du enpresan.

Orain dela urte eta erdi, proiektua abiatu zenean, taula beltza besterik ez zegoen aretoan. Orain 3 esparrutan banatuta dago 300 metro koadroko egoitza. Areto handiak, Kuia deituak, 5x6ko eszenatokia du, baina ez du antzestoki formalaren antolamenterik. Jendea lurrian eseri liteke nahi izanez gero, eta 80 laguntzako tokia du. Formatu txiki eta ertaineko ikus-entzunezkoak eskaintzea da plana. Mediateka eta elkargunea ere badute.

Gasteizko sortzaileei eskainia

Garazi Lopez de Armentia ustez, Gasteizen bada zer egin eta zer ikusi arte eszenikotan. “Lan handia dago egiteko, hain zuzen ere, horretarako sortu da Baratza, agente artistiko-



ek izan behar dutelako kultura kudeatu eta landuko dutenak. Bestalde, gauza guztiak aldi berean gertatzen dira normalean, plangintza kultural baten falta dagoelako, hain justu”.

Antzerki ikastaroak eta tailerrak ere antolatzen dira Baratzan. “Hutsune haundia dago, goi-mailako formakuntzan, batik bat. Gure nahia bada arlo hau apur bat sendotzea baina ez dugu formakuntza osorik edukiko. Badugu bestalde, ikerkuntza laborategia ere. Dagoen hutsunea ez dago guztiz estaltzerik, baina profesionalak elkartzeko espazioa behintzat izango da”.

Eusko Jaurlaritzako Sormen Lantegiak programaren laguntza jaso du Baratzak. Aretoko kudeatzaileen ustez, “laguntza publikoa beharrezkoa da, baina ez dugu uste artetik bizi gare-

nok laguntzetara ohitu behar dugunik. Antzokiak betetzea lortu behar da, eta horretarako instituzioen beharra dugu, baina diruz ez ezik, heziz ere lagundu behar da, kulturara hurbiltzeko baliabideak ipiniz. Pentsamoldea aldatu behar da”. Baratzakoek antolatutako lehen ekintza mahai-inguru bat izan zen. *Publikoa desesperazioz bilatzen* zuen izenburua. Mahai-inguru hartan, publikoa egon badagoela ondorioztatu zuten, harengana heltzea dela gakoa. Eta harengana iritsitakoan, publikoa aktiboa eta fidela dela. ■



Euskal eszenaren erakusgarria Leioan

Euskara hutsezko sorkuntza du ardatz Kultur Maratila jaialdiak, eta otsailaren 20tik 23ra egingo da Kultur Leioan. Lau egunez, beraz, antzerkia, dantza, musika, poesia eta literatura gozagai, Leioako Udalaren Kultura Saileko zentro publikoan.

Euskal sormenean krisirik ez dagoela islatzen duen ekimena dugu, urtero antolatzen baita, eta harrera ona izaten baitu aldiro.

| MYRIAM GARZIA |

ENERITZ ARTETXEREN azken lanak, *Konpota*, emango dio hasiera jaialdiari, arratsaldeko 20:30ean. Phillippe Gaulier dramaturgo frantsesaren lana itzuli du Antton Lukuk eta Dxusturi Teatroa taldeak eszenaratu. Emakumezko bufoia gorpuzten du Eneritz Arretxe, batzuetan ero, eta besteetan zuhur. Gogora ekar dezagun Zubi egitasmoaren laguntza jaso zuela Dxusturi Teatroaren *Konpota* lanak.

Otsailaren 21ean, berriz, Ertza dantza taldea arituko da Auditoriumean. Asier Zabaleta dugu dantza garikide talde honen sortzailea eta dantzaria. Dantza lan berri batekin dator kigu Zabaleta. *NAN* ikuskizunak zenbait diziplina uztartzen ditu: dantza garaikidea, testua, bideoa eta zuzeneko musika. Nortasunaren eta nazionalitatearen inguruko hausnarketa da funtsean.

Asier Zabaleta dantzariak, Iñar Sastre musikariaren zuzeneko laguntza du. 2012ko urtarrilean hasi zen bien arteko lan prozesua, Iñar Sastre piano-jotzaileak Zabaletari inprobisaketaz osaturiko CD bat bidali zionean. Gustura jaso zuela argitu digu Zabaletak: “Musika hori ikaragarri gustatu zitzaidan eta dantzan jarri ninduen segituan. Euskal doinu zaharren bertsioak ziren

denak, tratamendu garaikide batez moldatuak. Euskal Herriko afera ekarri zidaten gogora eta azken 40 urte hauetan herri honetan, eta herri honengatik, zuzenki edo zeharka bada ere, bizitza galdu zuten guztiei omenaldi gisa eskaini nahi nien”. Horrela, *Joan zaretenei adio* pieza sortu zuen dantzariak. “Gero, abiapuntu horretatik segita, gaia zabaltzea eta sakontzea erabaki nuen, Iñarren musikak erabiliz betiere. Eta azkenean

herriarekiko sortzen dugun harreman horretan zentratu nintzen. Euskal Herriko afe-ratik mugak zabalduz, edozein pertsonarentzat eta edozein herriri aplikagarria izan litekeen hausnarketa eginez”, jarraitu du dantzariak. “Nire ekarpena hainbat galdera plazaratzea da. Askotan, urtetan dirauten antzeko afe-retan geure posizioa etxetik ikasi dugunaren eta bizitzan izan ditugun esperientzien ondorioa izaten da eta kosta egiten zaigu ‘bestearen’ aza-lean sartzea. Hemen ez da erantzunik ematen, baina ikusleak ikuspuntu ezberdi-nak izan ditzan eta ulertu ditzan saiatzen naiz”.

Kontzeptu konplexua dirudi dantza bidez adierazteko, baina Asier Zabaleta ez dator bat: “Dantza lanabes ezin hobe da hitzez esan



ezin duguna adierazteko. Ikuskizun honetan hitzak bere lekua du, baina hauek iristen ez direnean gorputzak bere espresibitate guztia erabiltzen du". Zuzeneko musikak badu zerikusirik espresibitate horretan. "Iñarrek izugarrizko indarra ematen dio jotzen duen musikari, gorputzez, bizitzaz atontzen du, eta azkenean bat egiten du eszenan gertatzen ari denarekin. Prozesu polita izan da. Biok sentitzen gara oso eroso inprobisaketaren munduan eta bi lengoaiak inprobisaketaren bidez leku berean elkartzea lortu dugunean izugarria izan da".


Otsailaren 21ean, gaueko 22:00etan, Erakusketa gelan musikari helduko zaio txanda, Mixel Etxekopar eta Francois Rosseren eskutik. *Trashumantzia* ikuskizuna dakarte zuberotar eta alsaziar musikariek. Inprobisazioari toki handia eskainiz, garaikidetasunetik asko du *Trashumantziak*. Txorien doinuak edo artaldearen soinuak baliatuz, bide musikal berezi batetik eramango ditu entzuleak.

Otsailaren 22an, arratsaldeko 20:00etan, *Zazpi Aldiz Elur* (Mikel Laboa Elurretan) Tanttakaren antzezlan berria ikusteko aukera izango dugu. Bernardo Atxagak idatzitako testuaren gainean, eta Iñaki Salvadorren eta Angel Unzuren zuzeneko musikaz lagunduta, Mireia Gabilondo eta Iñaki Rikarte aktoreek antzeztuko dute Mikel Laboaren unibertsoa ardatz duen lana.

Mireia Gabilondo aritu da zuzendari lanetan eta halaxe esan zigun: "Mikel Laboaren gogo sortu zitzaidan, berak askotan lagundu bainau nire bizitzan egin ditudan lan gehienetan, Laboa kuttunetarikoa bat da niretzat. Mikel Laboaren figuraren inguruan lan berri bat egiteko gogotik sortu da obra". Lanari ekiterakoan argi zuen Mireia Gabilondok Mikel Laboaren lagun sortzaileekin elkarlanean aritu behar zuela, Laboa gertutik ezagutzen zutenak behar zituela ondoan. Horregatik, Iñaki Salvador musikaria arituko da zuzenean. "Gurekin hainbat lan egin ditu" dio Gabilondok, "baina batez ere, Laboarekiko gertutasuna interesatzen zitzaigun, beti lagundu baitzuen bera pianoaz. Gertuko jendea erakarri nahi nuen. Bernardorekin beste horrenbeste. Aspalitik zuen idatzita Mikel Laboaren inguruko testu hori, eta hortik abiatu ginen, Mikelen unibertsoa bizirik mantendu nahian". Musikak, hitzek, poesiak, Mikelen bizitzak eta Zumetak egindako irudiek osatzen dute ikuskizuna. Kultur Maratila jaialdiaren baitan aurkeztuko du Tanttak lan berria, eta Mireia Gabilondoren iritziz, "oraindik beharrezkoak dira Kultur Maratila bezalako ekimenak. Euskarazko sor-

ZAZPI ALDIZ ELUR

(mikel laboa elurretan)



TANTTAKA Teatros

Testua: Bernardo Atxaga; Zuzendaritza: Mireia Gabilondo

Interpreteak: Maria Berasarte, Mireia Gabilondo, Iñaki Rikarte, Iñaki Salvador eta Angel Unzu



kuntza hor dago, eta hainbat gauza egiten ari dira ildo horretatik. Publikoari eskaini behar zaion zerbait da, jendea hurbiltzea da garrantzitsuen eta jendeak gozatzea".

Egun berean baina gaueko 22:00etan, Erakusketa gelan, JB Pedradas antzerki taldeak *Pepino Ustelak Hozkailuan* bakarrikzeta aurkeztuko du. Jabi Barandiaran dugu taldeko antzezle eta zuzendaria. *Pepino Ustelak Hozkailuan* transformazio baten istorioa da, gizona emakume bilakatzen da publikoaren aurrean. "Barreak bizitza salbatzen didalako, eta barre egiteari uzten diodanean, akabo" dio Espe Pino pertsonaiak.

Azken egunean, otsailaren 23an, poesia, musika, antzerkia, argazkigintza eta bertsolaritza batzen dituen *Gabrielen Lekua* sentikaria helduko da eszenara. Oier Guillanek eta Andoni Egañak, Gabriel Arestiren testuetan oinarritutako gidoia idatzi dute, eta Rafa Ruedak musikatu ditu honen poemak. Taula gainean zazpi lagun, Arestiren ondarea berpiztu nahian. ■





Haur eta Gazte Literatura

Zapatagorri
Pello Añorga

Irudiak: Jokin Mitxelena.
Denonartean, 2013

Bi hanka ditu otsoak

PELLO AÑORGA ETA JOKIN MITXELENAREN azken lan honek Perraulten ipuin ezagun baten oihartzuna du hasieratik: “Herri menditsu batean, bizi omen zen neskata bat ama, aita eta amonarekin. Eta beti ibiltzen zenez zapata gorri batzuk jantzita, eta beti hizketan zapata gorri haiekin, denek deitzen zioten ZAPATAGORRI”. Norbaitek ez badu hasiera honetan ipuin ezaguna harrapatu, nahikoa du hurrengo orrira pasatzea eta bertan: “Eta kontua da, OTSO BELDURGARRI bat ere bizi zela herri menditsu hartan” irakurtzea eta berehala etorriko zaio, etorriko zaigu, burura Txanogorritxu, gorria, otsoa, neskatoa... Jakina, Añorgak eta Mitxelenak beste bertsio berri bat eskaintzen digute, ezberdina, lau hankatako otso hori bi hankadun bilakatuta, Txanogorritxu inuzentea egungo neskato biziak ordezkatuta.

Narrazioan nabaria da idazleak ipuinak kontatzean erabili ohi duen erritmoa, hitzekin nola jolasten duen eta letra larrien erabilerraren bidez non jartzen duen indarra. Testu horren ondoan, gainera, irudiak ditugu; kolorearen erabilera egokiaren bidez irudi koloretuetatik, paisaia beltzetara edo basoko paraje gorri eta beldurgarrietara eramaten gaituzte Jokin Mitxelenaren irudiek; baita etxeko gozotasunera ere.

Zapatagorri basoan barneratzen da, eta ipuin ezagunean bezala entretenitu eta galdu; ondoren, basoan, otsoak harrapatu du: “Otso beldurgarriak atzaparrak luzatu eta harrapatu egin zuen. A ze animalia zen otso beldurgarria! A ze basatia! A ze hortzaundia!”; neskatoak, baina, aurre egingo dio otsoari eta ondoren ihesiari ekin.

Ipuinak amaiera zorionsua du, Grimm anaiei bertsioan bezala, eta ipuin klasiko askotan gertatzen den moduan ikaskizun batekin, aurretik azaldua, era erdi ezkutuan... gure inguruko otsoen berri emanez: “Eta harrituta geratu ziren denak: zur eta lur. Izan ere, orduantxe konturatu ziren otso beldurgarri hura ez zela animalia, baizik GIZONA. Larrua erantzera konturatu ziren. Alazango! Ez zen otsoa, baizik GIZONA omen zen: haur-lapurra! Haur-lapur galanta! Gaizkilea!”; eta alde horretatik Perraulten hasierako bertsiora, neskatoei gizonekin kontuz ibiltzeko adierazten zien hartara, are gehiago hurbilduz.

Zapatagorri hau Txanogorritxu haren bertsio berri eta ezberdin bat dugu, harekin jolasten duena, harengana eramaten... eta irakurlearekin, gure espektatibekin, jolasten duen obra; Pello Añorgak eta Jokin Mitxelenak tradizioa eta gaur egungo mundua uztartuz lorturiko liburu guztiz interesgarria. ■

Xabier Etxaniz Erle



Ostiral
Santiago Freire

Irudiak: Dani Padrón.
Itzulpena:
Garbiñe Ugarte
Graziante paralizeta.
Sushi Books, 2013

Laguntasuna bizitzaren ardatza delako

SUSHI BOOKS euskal letren mundura heldu berri den argitaldaria *Ostiral* albuma jarri digu eskura. Robinson Crusoe uhar-te galdu hartan izan zuen adiskide mina dugu protagonista, Ostiral, sakrifizioetik libratutako indigena. “Baliteke niri buruz zerbait entzun izana, baita nire lagun Robinsoni buruz ere, baina beti haren ahotik izango zen. Orain nik kontatuko dizuet nola ezagutu nuen gizon zuria”. Hala, bigarren planokotzat jotakoari ahots nagusia emanik, lehen ezaugarri nagusia balioetsiko diogu liburuari: beste perspektibak kontuan hartzea, historiak gutxietsitakoari behar duen garrantzia ematea; lehen lerrora ekarriz, bestearen pare jartzea, berdintzea. Nolaketasun ederrak ageri ditu, bestela ere, istorioan barrena, gehienak Ostiralek gorpuzturik: pazientzia, errespetua, ahula babesteko sena...

Baldintza latzetan elkartu diren bi gizonen arteko laguntasun pitzaezina da ipuinaren mamia. Hunkitu egiten du Crusoeen azken lerrotako aitor-tzak: nahiago galduta baina laguna ondoan, zibilizazioko bakardade engainarian baino. Adiskidantza galtzeak eragingo lukeen nahigabea sentitu egiten da. ■

Garbine Ubeda
Goikoetxea





Behe presioaren erdigunean

Keu Agirretxea

Mamusik, 2013

Luzaroan ekin izanaren emaitza jantzia

IZEN HANDIETATIK HARAGO, badira euskal musikagintzan ekinean eta ekinean lan erraldoia egiten duten bestelako musikari ia ezezagunak. Hauen uztza –wikipedia agertzen ez den arren– handia da eta askotan oso anitza. Horietako bat zalantzarik gabe Jose Mari *Keu* Agirretxea ondarrutarra da.

Keu Agirretxeak ezin du musika gabe bizi. Bere ibilbidea lerrootan jasotzea ia ezinezkoa da: Psychophony taldean muturreko metala landu zuen; Zain ongietorrietarako sortutako proiektu akustikoa izan zen; Etsaiak taldean punka eta hardcorea pirotekniarekin luzaroan landu zuen; JSangre-rekin indarrak batuz Governors-en aurrekari izan zen Fjord taldea sortu zuen; Keu izenpean gitarrarekin esperimentatu eta disko instrumentalak kaleratu zituen; Uek hirukotea sortu eta (ia) lehenengoz abesteari ekin zion; Keu izenpean pop kantuak akustikoan landu; Fignuh Experiencen giro akustikoak jorratzeko taldea osatu zuen. Hori gutxi balitz, 2011n *Denbora Vs. Kantuak* lan bikoitza kaleratu zuenetik Governors taldearekin zuzenekoak egiteaz gain, *Gazta zati bat* filmaren soinu bandan lan egin eta, baita ere, Fignuh Experience zein Keu Agirretxea gisa kontzertu akustikoak egiten. Hastapenetatik alboan du Mikel Arakistain baxu jotzaile fina.

Hori guztia familia eta lanarekin batera uztartu, eta sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik abestiak idatzi, sonoritatez mimatu eta etxean grabatzeko tarte hartu du. Paradoxikoki halako denbora eta eginbeharren presiopean egindako disko hau da, ene ustetan, lortu duen borobilena eta jantziarena. Keuk berak etxean grabatua eta Madrilgo Audiomatic Recordsen Jose M. Rosillok masterizaturia.

Keu Agirretxearen kantuak beren kasa defendatzen dira, laguntzarik gabe, hain dira biluziak eta benetakoak, baina lan honetan, inoiz baino gehiago, ñabardura zehatzak gehitu dituzte Keuk eta bidailagunek, kantuak eskatutako tamaina justuan. Keuk



LANDER ARRETXEAK

menderatzen duen slide gitarrak sakontasun eta goxotasun handiagoa eman die kantuetako batzuei, folk amerikarraren eta countryaren koordenadetatik hurbil (*Bakoitzean*, *Olatu bakoitzeko*...). Gainera, bidelagunei esker, are eta urrunago bidaiatuko dute kantuek eta entzuleok: Xabi Solanoren programazioek lagunduta, *Inork ez digu esaten* mestizaje giroetara hel daiteke; Esteban Valcarcelen tronpetak Kubako espiritua zabaltzen du *Bi izan* kantuan, Eneko Mobydicken parte-hartzearekin –ahotsean– diskoko lan ederrenetarikoa bilakatuz. Harago joanda, Isusko Ramonen saxoarekin *Inperfektu eta hauskor* bossanova eta karibear eremuetara eraman dute; eta akaso Carlos Noainen sintetizadoreek izango dute errua *Indar galaktikoa* intrigantea soinu banda baterako aproposa izateko.



Hitzak ere ederrak, hutsunea, oroimenak eta elkartasuna (*Zubian*) tarteko, Keuren eta honoko beste sinaduren eskutik: Leire Bilbao, Mikel Etxaburu, Eneko Garmendia eta Aiert Goenaga. ■

Iker Barandiaran



Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Gorka Ovejerok esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


	5		8		6			
8		4	5	1	3	7		6
			9	7			3	
7	4	8					9	2
	6	9	1		8	5	7	
5	3					6	8	4
	2			8	9			
4		3	2	5	1	9		8
			3		7		4	

Zaila

		6					3	5
		5	8	1		7		
			6	4	5			
8	9		6				2	
7			2		9		8	
			1	3	9			
		1		7	2	8		
5	9					2		

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



- 1.-Erabat lasterka.
- 2.-Atsekabe.
- 3.-Ospea.
- 4.-Abesti.
- 5.-Arabiar dinastia.

Kike Amonarrizen umorea

Bonboi hutsa

Aste honetako txistea Jonjo Agirrek bidalia da.

Bi emazte zaildu, kafea har-tzen...

– Nire senarra bonboi hutsa da.

– Horren polita al da ba?

– Polita ez. Biribila eta pattarraz bete!



Soluzioak

Erraza

1	8	6	2	9	7	4	3	5
9	4	3	8	1	3	7	2	6
3	5	7	8	2	6	4	1	9
8	9	4	5	1	3	7	2	6
7	4	8	3	5	1	9	2	6
2	6	9	1	4	8	5	7	3
5	3	1	7	9	2	6	8	4
4	7	3	2	5	1	9	6	8
6	1	2	9	7	4	5	1	8

Zaila

1	8	6	2	9	7	4	3	5
9	4	3	8	1	3	7	2	6
3	5	7	8	2	6	4	1	9
8	9	4	5	1	3	7	2	6
7	4	8	3	5	1	9	2	6
2	6	9	1	4	8	5	7	3
5	3	1	7	9	2	6	8	4
4	7	3	2	5	1	9	6	8
6	1	2	9	7	4	5	1	8

Puzzlea:

“Tarakadena hasieran ekinza ikusgarri bezala pentsatua zegoen, baina azkenian oso gogorra bilakatu zen eta ondorio garrantzitsuak izan ditu”.

5x5:

1. Itoka.
2. Tamar.
3. Omena.
4. Kantu.
5. Alai.



Iñigo Astiz
eta Mikel
Ayerbe,
Gasteizko
Parral
tabernan
eskainitako
saioan.

HONDAKINDEGIA

Lur emankorra

EZ OMEN DA antzerkia, ez dantza, ezta performancea ere. Eta ororen gainetik, ez da errezitaldi musikatua. Ikus-entzunezkoek lagundutako errezitaldi dramatizatua apika?

Izenak izen, astearte iluntze batez Gasteizko Parral taberna goraino betetzeko gai izan zen Mikel Ayerbek eta Iñigo Astizek azken honen *Baita hondakinak ere* (Susa, 2012) liburuko zenbait poemetan oinarrituta garatu duten ikuskizuna: *Hondakindegia*.

Lau aulki, mahai bat, poltsa bete lur eta baso bat ardo. Eta gorpuzak. Ez dute besterik behar poemek iradokitako esperimendu eta itaunak taulartzeko. Gorpuzteko. Soila bezain adierazkorra da emaitza, Astizen poemak neurrikoa; “loratze poetikorik gabea”, biluzia eta ederra.

Irakurketekin batera, poemek iradokitako akzio edo egoerak irudikatzen dituzte oholtzan: banaka edo binaka; bata errezitatu eta besteak antzeztuz –Astizek *Esperimentu geofagoa l(ab)orategian* olerkia errezitatu bitartean, ahoa lurrez betetzen du Ayerbek–, edota bien ahotsak tartekatuz. Horri esker, poemak oihartzuna biderkatu egi-

ten da, paperean jada igartzen diren joerak nabarmenduz batzuetan, eta baita tarteka ñabardura berriak agerraraziz ere.

Heriotza eta mina ardatz edota abiapuntu dituzte ikuskizuna osatzen duten hainbat poemek. Haatik, umoreak ere badu tarterik: betebetan asmatu dute Astizek poemetan bikain darabilen (auto)ironia sotila, irria piztearekin batera barrena urratzen dizuna, oholtzara eramaten.

Azpimarratzekoak dira Hasier Goikolea eta Iñigo Astizek elkarlanean egindako ikus-entzunezkoak ere. Ikuskizuna aberastu egiten dute hizlariak lipar batez arnasa hartzeko tartea eskaintzearekin batera. Aipamen berezia merezi du *Esperimentu geo-domestikoa ilunpetan* poemak narratzen duen ariketatik abiatuta gauzatu dutenak: hiru laguni aipatu poemako esperimendua errepikatzeke eskatu diete –etxean daudela, begiak itxi eta lehenagoko etxea gogoratzeko ahalegina egiteko– eta grabatu egin dute prozesua. Zirraragarri egiten da hiru “subjektuak” iraganak garunetan utzi dizkien hondakin errealek horiek deskribatzen ikustea.

Baina jatorrizko testuak ez du protagonismoa galtzen, eta zentzu horretan, ezin da *Hondakindegiaz* hitz egin Euskal Herria (Ginsberg erara) poema luze eta antologikoa ahotan hartu gabe. Euskal Herriari ozen mintzo zaio Astiz, baita Ayerberen ahotsetik ere, aitortza pertsonalak eta aurpegiratzeak tartekatuz eta sorterriak sortzen dizkion kontraesanak agerian utziz (“Euskal Herria, zer gezur errespetatu behar nizuke nik? / nork pasa dit zure lekukoa?, nire gezurra al zara?”).

Osagai horiek guztiek Parral bete genuen txaloak irabazi zituzten, ondo merezita irabazi ere. Ikuskizunaz goatzeko beste aukerarik ere izango omen da laster. Oraindik egin ez duzuenoi esperimendua dastatzeak merezi duela esango nizuke. Nik bederen, edeki berdinduta eta liburua berrirakurtzeko gogoz egin nuen etxerako bidea, lorerik emango ez badu ere, irentsitako lurra hondakin antzua ez denaren (ustezko) ziurtasunarekin. ■

Lander Arretxea
Bereziartua



Merkeagoa da Garoña zabaltzea ixtea baino



ABC

Garoñako zentral nuklearra.

NOLA ITXI TXERNOBYL? Nola itxi Fukushima? Bi zentral nuklear horiek istripuak jasan ondoren “bizirik” jarraitzen dute, eta inork ez du ixtea planteatzen. Lehen estali eta berrestali egin dute, eta hurrengo belaunaldiak egin dezaketen aurrerapen teknologikoen esku utzi dute soluzioa; bigarrena erradioaktibitatea isuri eta isuri ari den bitartean zientzialariek, nahiz eta hasieran eraistiaz hitz egin zuten, gero eta garbiago dute estaltzera eta behar den aldi orotan berrestaltzera jo beharko dutela.

Zentralen guneak aktibatzeke moduak ezagunak ditugu, baina desaktibatzeke bideak ez. Esan dezakegu zentralak aktibatu ondoren bizitza ia infinitua ematen diegula.

Garoña ez da salbuespena. Zentrala gelditu zuten, baina ez itzali; ez baitakite nola. Azken bi urteotan Garoñaren inguruan gertatzen ari direnak gero eta garbiago azaltzen du ezintasun teknikoa. Europak agindutako segurtasun neurriak ezarri gero zentralak errentagarri izateari utziko lioke; Nuclenorek, zentralaren jabeak, badaki ireki ondoren gutxienez hamar urtez funtzionatu beharko lukeela segurtasunean egin beharreko inbertsioa amortizatzeke. Badaki, halaber, zentrala geldituz gero itxiera kostuari ez ezik arazo ekosozial handiei aurre egin beharko liekeela. Badi-rudi Espainiako Gobernuak ere arazoa ulertu duela, eta behingoz konturatu da askoz ere errentagarriago zaiola zentralak *sine die* irekita mantentzea. Hala, erraz ulertzekeak dira azken asteetan zentral nuklearren bizitzaren luzapenez izan diren berriak. ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

Azukrez dabilzan bateriak

Virginiako Institutu Politekniko eta Unibertsitateko ikertalde batek azukrez dabilen bateria sortu du. Bateria berriak energia metatzeko gaitasun handia du, eta birkargatzeko modukoa eta biodegradagarria da. Hortaz, baliteke etorkizunean ohiko baterien ordezkari bihurtzea.

ttiki.com/60647
(Euskaraz)

Zelulosazko nanokristalak

Zuhaitzek zelulosazko nanokristalei zor dizkiete erresistentzia eta zurruntasuna. AEBetako Purdue Unibertsitateko ikertzaileen ustez, material hori eraikuntzan eta automobilgintzan erabil daiteke, altzairua bezain zurruna dela konturatu dira eta. Gainera, biodegradagarria da, eta nahiko erraz eta merke lor daiteke, hondakin ugarienetakoa baita papergintzaren industrian.

ttiki.com/60648
(Gaztelaniaz)

Leiho adimentsuak energia aurrezteko

Etxeetako leihoak oso garrantzitsuak dira berokuntza sistema erregulatzeke. Berriki, hiru fabrikatzaile europarrek, elkarrekin egindako ikerketa baten ostean, energi kontsumoa %20 hobetu dezakeen leiho sistema iragarri dute.

ttiki.com/60649
(Gaztelaniaz)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Bihotz bero

ODOL GIROA nagusi izaten da neguero. Guraize, aihotz, zerrote, motozerra... inauskaiak zorrotz! Epaia emateko prest epaikiak. Epaile kaskarin gehiegi. Buru beroko kasko asko. Bihozgabe bihozgabetzaileak.

Inausten diren zuhaitzek bihotza non duten ez dakigu. Sentitzen dutelako susmoa gero eta nabarmenagoa dela dioen ikerketa ugari dago. Bihotza badute. Arima, espiritua, gogoa... Ez dakit nola deituko zaion behin betiko topatzen zaienean.

Zuhaitzek bihotza badute, haltzak (*Alnus glutinosa*) izan ezik. Haltzari bihotza aspalditik ukatua diogu... Gure bihozgabekeria azaleratzen baitu! Mozten denean zuri-zuria den zura gorritu egiten da. Geure odola gogora ekartzen digu. Kontinente osoko sineskeria da: haltza sorginduta dago. Ezin ulertu dugu, eta odola, eta, beraz, bihotza badituela agerikoa duenez, bizkarra eman eta, azkar asko, bihotzik ez duela kantatzen diogu. Moztu berrian hartzen duen gorri hori, argiak moteldu eta desagerrarazten du. Kolore aldaketa horien harira, Europako iparraldekoenek berpiztearen ikurtzat zuten. Emakume eta gizaseme, denok haltzetik eta lizarretik (*Fraxinus excelsior*) gatzozela diote han.

Gutxien uste denean haltzaren bihotzarekin topo egingo duzu. Erresonantzia kutxarik gabeko



Goian, haltz enbor moztu berria, gorri-gorria. Eskuinean, haltzeko azpila, zuri-zuria.

lehenetako gitarra elektriko trinkoak, Fender Stratocaster mitikoak, 1954an, lizarrezko gorputza zuten. Gero, 1956tik aurrera, berriz, haltzekoa. Haltzaren zurez egindako ikatza nitratoarekin nahasi eta bolbora egiten dugu; kalitaterik oneneko omen. Ogi labea berotzeko egur ona du, gar handikoa. Lantzeko gozoa da egur hori, eta besteak beste, Mezkitzen eta Oizen "txoklak" deitzen dituzten eskalapoiak, sukaldako ontziteria, kirtanak, eskulturak, jostailuak eta abar egiteko erabili izan da.



Ura non, haltza han. Ura den tokian hazten da, eta urpeko egiturak egiteko, *Fagus sylvatica* pagoarekin batera, haltza da zurik onena. Airetik eta argitik gordez gero, luze irauten du: zubiei eta ur gaineko beste edozein erakuntzari eusteko zimendu asko haltza dira.

Gosea piztuz amaitzeko, gaztak haltzaren ezpalez ketzen dira. ■



JAKOBA ERREKONDO

J. E.



blogetan!
BLOG IZARREN BILA

Bozkak emateko epea ireki da Urtarrilak 27 - Otsailak 16

Bozkatzeko bi modu:

- Webgunearen bidez erregistratuta
- Norberaren twitter kontutik

Bozkatu gehien atsegin duzun bloga

Antolatzailea

azkue

www.blogetan.com

SARIAK: Bernat Vidal artistaren garaikurra | 200€ diru txekia | ARGIA kolaboratzeko aukera

Laguntzailea

argia

Zergatik egin zuen txiza mutikoak?

BRUSELA (BELGIKA), 1388. Santa Gudula katedraleko artxibategiko dokumentu batek Manneken Pis monumentu ezaguna aipatzen du lehenengoz. Ez dakigu zehazki nork eta noiz egin zuen eskultura; bai, ordea, mendeetan zehar hainbatean lapurtu zutela, eta dokumentu horretan aipatzen den estatua ez dela gaur egun ikus daitekeena. 1619an Jerome Duquesnoy artistak, François Duquesnoy eskultore ezagunaren aitak, brontzeko estatua berri bat egin zuen. Baina txiza egiten ari den mutikoren abenturak ez ziren orduan amaitu. 1695ean Bruselako hiritarrek estatuatxo frantziarren setiotik babestu behar izan zuten. Orduz geroztik Manneken Pisek inskripzio hau du azpian: *In petra exaltavit me, et nunc exaltavi caput meum super inimicos meos* (Jaunak harkaitz baten gainean jaso ninduen, eta orain burua etsaien gainetik jasotzen dut). XX. mendeko 60ko hamarkadan, aldiz, ezin izan zuten lapurrengandik babestu. Batzuek diote azkenean Duquesnoyren obra berreskuratu zutela; beste batzuen esanetan, erreplika bat da hiriko alde zaharrean, L'Etuve eta Chene kaleen kantoian, Grand Placetik hurbil dagoen estatua.

Mutiko pixontziaren jatorriaren berri zehatzik ezean, hainbat kondaira zabaldu dira estatuaren zergatia azaltzeko.



MARKUS KOLJONEN

Egun batez, etsaiek hiria setiatu zuten, eta harresiak botatzeko lehergailu indartsu bat jarri zuten. Juliaanske izeneko mutiko batek metxa pizten zutela ikusi zuen, zitzu bizian harresira igo zen eta, gainean txiza eginda metxa itzali omen zuen, hiria salbatzeko.

Beste elezahar batek 1142ra garamatza, Ransbeko gudura. Godofredo Lorainekoak semearen sehaska haritz baten adarretan lotu omen zuen soldaduei adorea emateko. Haurrak, goitik, etsaien gainean txiza egin omen zuen.

Bertsio esoterikoenaren arabera, behin batean Bruselako noble baten semeak prozesio bat utzi zuen txizagura zuelako. Arduragabe, sorgin baten etxeko bazterrean egin zituen egin beharrekoak, eta sorginak, zigortzeko, estatua bihurtu omen zuen.

Azken kondairak merkatar aberats bat eta haren semea ditu protagonista. Egun batez, merkataria haurra galdu zuen, eta aitak ordainsari mamitsua eskaini zion aurkitzen zuenari. Herritarren ahaleginak alferrikakoak izan ziren, ordu batzuk geroago aitak berak topatu baitzuen haurra lorategi batean txiza egiten. Ordainsaria nori eman ez zekiela, dirua semearen estatua batean gastatu omen zuen eta monumentua herritarrei eskaini, haien ahalegina eskertzeko. ■



Arrastoak

Beste piramide bat aurkitu dute Egipton



CHICAGOKO UNIBERTSITATEA

4.600 URTEKO piramide mailaduna aurkitu eta induskatu dute Edfu inguruan. Keopsena baino hamarkada batzuk zaharragoa da, eta hura baino askoz txikiagoa. Oinarrian 20x20 metroko neurria du, eta hamahiru metro inguruko altuera zuen, orain bost metrora besterik iristen ez den

arren. Piramide “probintzialen” multzoan sartu dute arkeologoez, neurri eta ezaugarri bereko beste sei piramidekin batera. Garbi dute ez zirela hilobiak, barruan gelarik ez baitute. Funtzioa oraindik argitzeke, faraoiaren boterea goresteko monumentutzat jo dituzte oraingoz. ■

«UPN Gobernutik kentzea nahi da gizartearen»

NaBairekin ekin zion Nafarroako Legebiltzarrean 2011n, baina hilabete gutxira, ETAren ondorengo garai politikoak harrapatu zuen: NaBai zatitu eta Geroa Bai sortu zen, Patxi Leuzarekin batera talde parlamentariotik kanpo geratu zen. 2003an egin zen EAJko militante eta 2012an Napar Buru Batzarreko lehendakari izendatu zuten.

| XABIER LETONA |

Argazkiak: Josu Santesteban



“Dieten kontuan judizialki sobornatze delitua izan ote zen ez dakit, ez naiz horretan aditua, baina etikoki Yolanda Barcinaren argazki oso itsusia atera zen gizartearen aurrean”.

DONOSTIARRA da (1967) eta Iruñean bizi da 1991z geroztik, bertara lanera joan ondoren. Arian eraikuntza munduko enpresan aritu zen hamaika urtez finantza zuzendari gisa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea ere izan zen Donostian. Enpresa pribatuan aritu izan da beti, baina esparru publikorako bokazio handia duela dio eta horrek animatu zuen hauteskundeetan

parte hartzera. Gaztelania eta euskaraz gain, frantsesa, ingelesa, aleman apur bat eta txineraz ere —maila baxuan, dio bere curriculumak— mintzo da.

2013ko apirilaren 19ko goiza da. Aurreko egunean Yolanda Barcina lehendakariaren aurkako zentsura mozioak porrot egin du. Zein da nagusitzen zaizun sentipena? Merezki

du halakoak egitea, aurrera egingo ez duela jakinda ere?

EH Bilduk proposamena aurkeztu zigunean zalantzan ginen merezi ote zuen halakorik egitea ez irabazteko, eta horregatik erabaki genuen proposamena ez sinatzea elkarrekin. Gero bai, osoko bilkuran baiezta eman genion, jakin badakigulako Yolanda Barcinaren Gobernuak jasanezina dela. Pena eman zigun

galtzeko aurkeztea. Hortik aurrera, dena den, oposizio kideen arteko harremana lantzen eta sendotzen jarraitu dugu. Gobernuak oso larri jarraitzen du, astez asteko iraupenari begira eta PSNk badaki oso zeregin garrantzitsua duela.

Agian PSNren jarrera izan zen zentsura mozio hartan agerien geratu zena.

Jakina. Saioaren aurretik etengabe ari ziren Gobernuaren dimisio eske, baina unea heltzerakoan sistema horren bidez ezetz erabaki zuen PSNk, haien esanetan horrek Bildurekin egotera behartzen zuelako. Berdin zen azaltzea ez zela gobernatzeko, beste hauteskunde batzuk deitzeko baizik. Orain, ezusteko handirik ez bada, UPNren Gobernuak bukaeraraino jarraituko du.

Eta horren ondoren berehala etorri zen CAN auziko gaia bete-betean. Estu ibili zen berriz Barcina. Sinetsi zenuen eroriko zela?

2013an bi jokaldi izan ziren, CAN auzia eta UPNren kongresua eta, gutxiarik bada ere, bietatik atera zen ongi Barcina. Dieten kontuan judizialki sobornatze delitua izan ote zen ez dakit, ez naiz horretan aditua, baina etikoki Yolanda Barcinaren argazki oso itsusia atera zen gizartearen aurrean. Azken hilabeteetan, gainera, UPN hasi da betiko mamuak astintzen. Abenduaren eta urtarrilaren zati bat lasaixeago joan zaizkio, baina osasun eta ogasun sailtako goi-karguen dimisioek berriz ere egoera deseroso eta ahulean utzi dute.

Urte eta hiru-lau hilabete falta dira foru hauteskundeetarako, baina Nafarroan jadanik hauteskunde usaina dago eta alderdiak ere horretara prestatzen ari dira.

Foru Hobekuntzaren arabera, hauteskundeak aurreratzeke epea oraingo martxoan amaitzen da, beraz, ez da ezer geratzen. San Ferminen ondoren hori bete-betean ikusiko da. Gainera 2012ko aurrekontu luzatuekin, Gobernuak ez du izango arazo gehiegirik diru kontuen aldetik eusteko, aurrekontuaren gastu eta sarrerak errealtatean aurreikusitakoak baino handiagoak direlako. Aurrekontuekin ez baina

“Gure Esku Dago gizarte mugimendu bat da, ez dago alderdirik atzetik, herritarrak ari dira bultzaka. Beraz, egon daitezela alderdiak bigarren planoan”

diru bilketarekin bai izan ditzake arazoak, egoera gero eta gogorragoa da eta.

Eta aritmetikak esango du Gobernua alda litekeela, baina PSNk berriz esan dezake ezetz. Hitz egin duzue argi eta garbi haiekin?

Orain arteko inkestek erakusten dute Geroa Bairen, Bilduren eta PSNren emaitzak pareko ibiliko direla. PSNk argi esan du publikoki, baita guri pribatuan ere, ez duela gobernurik egingo Bildurekin.

Esan dute baita ere Geroa Bairekin bai egingo luketela.

Bai, hori ere bai, eta ikusi beharko da Espainian PSOEek duen egoerak nola eragingo dien hemen. Yolanda Barcinak, halaber, jarraitzen du bere Madrileko kanpainarekin eta botatzen dituenak botata. Zeini zuzendua da, PSOERI eta Rubalcabari?

Hala esaten da, ezta? 2007an ere UPNk antzera jokatu zuela esan da eta lortu zuela PSNren eta NaBairen arteko akordioa zapuztea. Posible ikusiko zenuke Geroa Bai-PSN gobernua (eta akaso Ezkerra) eta Bilduk Legebiltzarretik sostengatzea?

Gehiegi aurreratzen ari gara. Ikusi behar da zer esaten duten herrita-

“Batzordearena (ETB) estilo kontua da, goazen ematera gutxiengoan dagoen gobernu bati aukera bat, gero esan ez dezan inposaketa bat izan dela”

rrek hauteskundeetan eta gero ea zer egin litekeen. Une honetan ez dugu horretaz hitz egin PSNrekin. Ezin dugu pasatu 2014 osoa hauteskundeetara buruz hitz egiten. Herritarrak arazo asko ditu eta gu saiatuko gara proposamenak egiten arazoei aurre egiteko. Hori bai, gizartean UPN kentzea nahi da, eta hori ere kontuan hartu behar dugu. UPNk alderdi inportante bat izaten jarraitu nahi badu, behar du berregin eta horretarako Gobernua kango egon. Mundua nola aldatzen ari den ikusita, guk ezin dugu jarraitu UPN honekin, ez dugu hori merezi.

PSNrekin zerbait egitekotan, lagun-garri izan daiteke 2007an NaBairekin gobernu akordiorako adostutakoa?

Izan liteke lagun-garri, baina ez dakit PSNk edo Ferrazek erabakiko duen. Orduan Ferrazek erabaki zuen eta orain ere... Oker ez banago, PSOEren estatutuen esanetan, halako erabaki garrantzitsuak PSOEek erabakitzuten ditu. Edozein eratan, beren denborak eta erritmoak beharko dituzte eta ez dute berdin jokatu bigarrenak, hirugarrenak edo laugarrenak izan.

Eremu zingiratsuetan sartzen gara, baina jaitsiko dela pentsatuta ere, ez ote da gehiegizko PSN bigarren postutik atzera irudikatzea?

Ez naiz ausartzen ezer esatera, baina inkesta batzuetan hori gertatzen da eta, edozein eratan, hainbat indar nahiko gertu gaude elkarrengandik. Krisia oso gogorra da eta jende asko oso haserre dago, bereziki UPNrekin, baina PSOEek ere izan ditu bere akatsak. Duela urte batzuk boto emaileak nahiko argi izango zuen zer egin, baina gaur egun askok ez dute izango hain argi botoa nori eman.

Aipatzen da Geroa Baik jaso dezakeela aurretik PSN bozkatu duten hainbaten botoa.

Ez dakit, baina guk hainbat kontu argi ditugu: bat, alternatiba oso serioa garelako; bi, erabakiak hemen bertatik hartuko ditugula; Nafarroatik eta Nafarroarentzako; hiru, Nafarroaren pluraltasuna aberastakoa dela; eta lau, gobernatzeko



"Ikuspegi sozialarekiko sentsibilitate handia dugun alderdia gara eta gure politika sozialetan etengabe islatzen da hori".

prest gaudela. Jakina, EAErekiko harremanak eta euskal izaera guretzat oso garrantzitsuak dira. Jendea-rengandik oso gertu sentitzen gara eta atzera begira ez dugu motxilarik. Gutan konfiantza izatea merezi duela erakutsi nahi dugu, jakinik 2015ean gobernatzea ez dela txan-txetakoa izango.

Uxue Barkos aktibo oso ona da. Bere erakargarritasuna abantaila da, alde guztietan bera ibili behar izatea desabantaila.

Uxuek garrantzi handia du guretzat, jakina, baina gure erronka da erakustea beste pertsona batzuk ere hor direla. Hainbat lan talde egin ditugu Geroa Bai, horietan jende asko dago, eta pixkanaka joango da ateratzen.

EAJ gehi Zabaltzen berdin Geroa Bai. Sarri entzun dut honakoa: ekuazio horretan ikus dadila ahalik eta gutxien EAJ, bestela ez dio onik egingo Geroa Bai.

Ahaztu zaizu independenteen taldea. Nik ez dut horrelakorik entzun. Geroa Bai ezberdinen koalizio bat da eta horrek akordioak eskatzen ditu. Nik uste dut gauza bat dela Nafarroako EAJri buruz dagoen irudia eta EAJ benetan zer den; eskuindarra, neoliberal dela entzun izan dut. Ikuspegi sozialarekiko sentsibilitate handia dugun

alderdia gara eta gure politika sozialetan etengabe islatzen da hori.

2012an NaBairen apurketa eman zen eta bi parlamentari taldetik kanpo geratu zineten. Sendatuta al daude zauriak?

Uste dut baietz, Aralarreko parlamentariekin harremana normala da, etorkizunera begiratu behar dugu. Gertatu zenaren azalpena hau da: 2011ko hauteskundeetan Aralarrek erabaki zuen NaBain joatea eta lau hilabete geroago Amaiurren baitan joatea Espainiako hauteskunde orokorretara. Erabaki hori izan zen detonagailua.

ETBren gaia: ez ote zen hobe, Labaien estilora, lehenengo egin eta gero negoziatu? Orain batzordea eratu da, batek daki noiz erabakiko den zerbait.

Aipatzen duzun zalantza hori izatea normala da, baina bi gobernuen arteko lan talde horrek emaitzak eman beharko litzuke epe motzean, borondate politikoa besterik ez delako behar eta hor ez dagoelako ez diru ez bestelako arazorik. Borondatea dagoen berehala ikusiko dugu. Batzordearena estilo kontua da, hau da, goazen ematera gutxiengoan dagoen gobernu bati aukera bat, gero esan ez dezan inposaketa bat izan dela. Lehen bileran mezu hori mahai gainean utzi da eta

ea bigarrenetan mugimendu gehiago dagoen. Ez dizut esango baikorra naizela, baina froga hau pasatu behar da.

Gure Esku Dago ekimenak giza katea antolatuko du ekainaren 8an Iruñea eta Durango lotuz. Sostengatuko duzue?

Gure Esku Dago gizarte mugimendu bat da, ez dago alderdirik atzetik, herritarrak ari dira bultzaka. Beraz, egon daitezela alderdiak bigarren planoan eta pertsona bakoitzak erabaki dezala zer egin nahi duen.

Zu enpresa munduan zuzendaritza postuetan ibili zara eta giza baliabideen irakaslea ere izan zinen. Zer iruditzen zaizu Adegik lan harremanei buruz egin duen proposamen berria?

Kezkarekin ikusten dut proposamena. Adegiren proposamena ulertzeko ondo ezagutu behar da Gipuzkoako lan harremanen esparrua, eta zaila da. Begira zer pentsatzen duen Bizkaiko enpresarien ordezkariak, esan du ez dutela halakorik egingo, haientzat hobe dela sindikatuetik harremanak bultzatzea. Nire ustez ere eredu hori egokiagoa da, baina ez bakarrik enpresa bakoitzean, garrantzitsuena sektoreakoa da eta, batez ere, lurralde mailako adostasuna. ■



BERND RIEXINGER
DIE LINKE-KO PRESIDENTEA

«Mugak ez daude herritarren artean, mugak aberats eta txiroen artean daude»

Die Linke alderdiko presidente da 2012tik Bernd Riexinger. Alemaniako Bundestagean oposizioiko talde nagusia da uneon eta Europako eredu neoliberalaren aurrean ezkerreko sektoreek daramaten borrokaren erreferente bihurtu da alderdia.

| MARTIN MENDIZABAL GARAI |



FLICKR / DIE LINKE

2013ko irailean egin ziren Alemaniako hauteskunde federaletan, ia lau milioi bozka eta 64 eserleku lortu zituen Die Linkek, eta hirugarren indarra izatera pasa zen. Irudian, Riexinger hauteskunde kanpainako ekitaldi batean.

Zergatik lortu dituzte CDUK eta Angela Merkelek Bundestagean (Alemaniako Parlamentua) hain emaitza onak?

Alde batetik, kantzilerrak jende asko konbentzitu du Euroaren krisiaren inguruko bere iritziagatik. Populazioaren zati handi bati ulergarria iruditzen zaio Merkelek

finantza krisiaren arrazoia estatuen zor publikoari egozte. Estatu horiek funtsik gabeko politika ekonomiko ez emankorra daramatez, erreforma sendo eta irmoak ezarri behar dituzte. Horri, gainera, gehitu behar zaio Alemaniari krisiak ez ziola eragin. Ondorioz

Merkelek ondo baliatu zuen SPDk alternatiba sendorik ez eskaini izana. Orain, nahiz eta CDU eta SPDren artean “Koalizio Handia” egon, Merkelen politikak berdin jarraituko du. Aldaketa kosmetiko txiki batzuk besterik ez dira emango hemendik aurrera.



FLICKR / DIE LINKE

Bernd Rixinger eta Die Linkeko presidenteorde Katja Kipping, Alemaniako Finantza Ministerioaren atarian, 2012an sinatu zen Europako Itun Fiskala salatzeako ekintza batean.

CDUK hauteskundeak irabazi zituen, baina ez zuen erabateko gehiengorik lortu. Hortik SPDrekin egindako koalizioa. Zer espero da hemendik aurrera?

Koalizio Handia sortu izana ezin zaie hauteskunde emaitzei egotzi, SPDri baizik. Sozialdemokratek aukera izan zuten Die Linke eta Berdeekin aldatuta politikorako ituna egiteko. Aukera hori errefusatu du SPDk. Horregatik, beste mota bateko politika egingo duten batere itzaropenik ez dut.

Die Linke oposizioko talde indartsuena da. Zer paper izan beharko luke zuen alderdiak gaur egun gailentzen den politikaren aurrean?

Iraganean jada, Die Linkek parlamentuan ordezkariak izan zituen alderdietatik politika menderatzaileari aurre egin zion talde bakarra izan zen. *Mainstream* politikoaren kontra eta errentak birbanatzeko *Umverteilung* proiektuaren alde egin genuen alderdi bakarra izan ginen. Merkelen austeritate proiektuaren kontra agertu ginen bakarrak ere izan ginen. Guk agenda politikoan zenbait gai plazaratu genituen, hala nola: soldata minimo bat edukitzea, errenta minimoa edota Afganistanen dauden tropek alde egitea kasu. Jarrera politiko berarekin jarraituko dugu, Koalizio Handiak ez baititu gure gizartean dauden klaseen arteko desberdintasunak murriztuko.

Alemaniako eredu ekonomikoa arrakastatsua dela esan izan digute askotan. Edonola ere, Alemanian arazo sozial oso sakonak daude: lan prekarietatearen hedapena, haurren txirotasuna edota geroz eta gehiago handitzen ari diren desberdintasun sozialak.

Alemaniak egun, Europa guztiko lan prekarietate indizearik altuena dauka. Geroz eta jende gehiago bizi da bizi-rauteko nahikoa ez den soldatarekin. Azken urteetan, esportazioa oinarri duten enpresak etekin izugarria ateratu diote horri. Politika hori, gaur egungo krisiaren sorburuetako bat da. Alemanian dauden soldata baxuak eta gure lagun europarren zorrak ezin dira banandu, bi gauza horiek erlazio estua baitute. Estatu batek beste estatu batzuek baino gehiago esportatzen badu, beste estatuak hori orekatzeko zorpetzera behartuta daude. Horregatik, krisia epe luze-ara konpondu ahal izateko, Alemaniak bide bat hartu beharko du: justizia soziala eta *Unverteilung*-a, hain zuzen.

“Egungo politikak klase bereko jendea lehiakide izatera behartzen du, krisiaren benetako jatorria sisteman dagoela ahaztaraziz”

Junge Welt egunkarian Europako ultra eskuin alderdien igoeraren inguruan idatzi zenuen, Egunsenti Urrekara Grezian edota Fronte Nazionala Frantzian, kasu. Alemanian AfD izeneko alderdi berria sortu da, azken hauteskundeetan botoen %4,9 izan duena. Zein arrisku ekar dezake mugimendu horren garapenak?

Honek eztanda handia sortu du, *Mainstream* politikoaren eta krisiaren aurkako politiken ondorio zuzena da. Europako herrialde askotan ultra eskuindar alderdien igoera nabarmena ikus daiteke; hauetako batzuetan, aurreikuspenen arabera, alderdi bozkatuenak izango dira Europako hauteskundeetan. Egungo politikak herritarrrak bata bestearen aurka aurrez aurre jartzen dituelako baino ez da posible hori. Klase bereko jendea lehiakide izatera behartzen du, krisiaren benetako jatorria sisteman dagoela ahaztaraziz. Kasuistika horretan, lan baldintza prekarioak jasaten ari den alemaniar langilea eta etorkin bulgariarra aurrez aurre jartzen ditu. Die Linkek erakutsi behar du, eta hori da gure eginbeharra, mugak ez daudela herritarren artean, greziar eta alemaniarren artean edota italiar eta portugaldarren artean. Mugak goiko eta beheko jendearen artean daude, aberats eta txiroen artean. Eremu horretan sakondu behar du ezker europarrak.



Die Linkeko jarraitzaileak Berlinen 2013ko azaroan egindako trantsizio energetikoaren aldeko mobilizazio batean.

Die Linke izan zen Bundestagean egun Europan dagoen krisi politikoa kritikatzen zuen alderdi bakarra. Zeintzuk dira krisi horren zergatiak eta zeintzuk izango dira ondorioak?

Krisiaren ondorioak Europa osoan ikus daitezke. Grezian populazioaren herenak jada ez dauka aseguru medikurik. Berogailuetako gasolioa hain da garestia non jendea basoak botatzera behartuta dagoen neguan berotu ahal izateko. Geroz eta herri-tar gehiago botatzen dute bere etxetik —hau inon baina gehiago Espainian gertatzen da—. Gazteen %50 edota %60k ez du aukerarik lan eta bizitza burujabea edukitzeko. Guk geroz eta perspektiba falta handiagoa ikusten dugu. Zergatiei dagokienez, azken urteetan porrot egin duen eraikuntzaren sektorean 4,5 bilioi euro inbertitu dira. Orain diru hori falta da, eta krisia aprobeztatzeko etekinak jaso dituztenei kendu beharrean, sektore publikoan eta politika sozialetan murrizketak egin dira.

Zer nolako neurriak proposatzen dituzue krisiari aurre egiteko?

Ezin diogu krisiari aurre egin neurri sorta bat ezarri gabe. Soldata, pentsio eta prestazio sozial handiagoak behar ditugu. Troikaren austeritate politikarekin behin betiko amaitu behar dugu. Nahitaezkoa da krisiaren kostuetan parte-hartze handiagoa egotea, hau da, etekin ekonomiko gehien dituztenek ekarpen

ekonomiko handiagoa egin dezatela, eta ez diru gutxien daukaten herritarrek. Finantza merkatuaren ordenamendu berria behar dugu. Neurri horiek guztiak modu kolektiboan aplikatzerik baleude, egungo Europarekin dudana baina itxaropen handiagoa edukiko nuke.

Aurki Europako Parlamenturako hauteskundeak izango dira. Nola ikusten duzue ezkerreko alderdi politikoei egin daitekeen elkarlana?

Alde batetik, Europako alderdi ezkerriar bezala, datozen hauteskundeetan emaitza onak eskuratzeko aukera dugula pentsatzen dut. Krisiarekiko daukagun jarrerak gure lehiakideez desberdintzen gaitu. Abagune horri onura atera behar diogu. Beste alde batetik, Europako ezkerreko beste alderdiekin daukagun elkarlana gehiago sustatu daiteke. Eremu europarrean dauden arazok Europa mailako erantzuna behar dute. Horregatik, elkarrekin aurrera eramanez ditzakegun proiektu konkretuetan lan egin behar genuke. Adibidez, Europa osoan ezarri

“Eskoziako eta Kataluniako kasuetan prozesu demokratikoez ari gara hitz egiten, eta emaitzak onartu egin behar dira”

daitekeen aberatsentzako zerga bultzatzen.

Litekeena da aurtun Katalunian eta Eskozian autodeterminazio erreferenduma egotea. Zein da prozesu horiekiko zure iritzia?

Bi kasuak oso interesgarriak dira baina ezin dut inolako aurreikuspenik egin. Edozein modutan, bi kasuetan prozesu demokratikoez ari gara hitz egiten, eta emaitzak onartu egin behar dira. Dena den, ni ezkerreko pertsona izanik, internazionalista kontsideratzen naiz. Europan ezkerreko lanean batera jarduten baino ez du lortuko arrakasta. Ez nago ziur lurralde-muga berri bat edukitzea kaltegarria izan ez ote daitekeen.

Hanburgon, Rote Flora zentro sozial okupatua defendatzeko protesten harira, agintariak *Gefahrengebiete*-ak edo salbuespeneko “arritsu guneak” dekretatu zituzten. Zuek gogor kritikatzen dituzue neurri horiek. Etorikizunean halako gehiago ikusiko ditugu protesta sozialak erreprimitzeko?

Hanburgo SPDren gotorlekua da. Sozialdemokratek oraindik ez dute gainditu duela urte batzuk demokristauek (CDU), Schill populista buru zutela, udal hauteskundeak irabazi izana. Garai horretan SPDri egiten zitzaion kritika zen, jende erradikalaren aurka neurri zorrotzik hartu ez izana. Alderdi sozialdemokratak orain, berriro alkatetza daukanez, sendotasuna erakutsi nahi du, horregatik proportzionaltasun zentzua galdu du. Honela sortzen dira modu aleatorioan *Gefahrengebiete*-ak, eta herritarrak susmopean jartzen dira. Nire iritziz ezin da populistagoa izan. Hanburgoko protesten atzean beste mota batzuetako arazoak daude: errentak garestitzea edota etxebizitza duinak lortzeko aukera eskasak. Alkate honek ordea, milaka milioi euro inbertitu ditu Elbako Filarmonika bezalako obra faraonikoetan. Norbaitek Hanburgon bake sozialaren alde zerbait egin nahi baldin badu, ez litzuke herritarrak modu indiskriminatuan mehatxupean jarri beharko. Aitzitik, pertsona guztiak etxebizitza duin bat edukitzeaz arduratu beharko litzateke. ■



Nola suspertu euskara Irunen

61.102 biztanle ditu Irunek (Gipuzkoa) eta horietatik 21.300ek euskaraz dakite (%34,9k).

Euskararen erabilera, ordea, %5,5 ingurukoa baino ez da, azkeneko neurketen arabera. Ingurumaria horretan, euskara bultzatzeko lanean urteak daramatzate Idoia Genua Irungo AEK-ko zuzendariak eta Joxeja Zabalo Betti Gotti gazteentzako Euskara Kultur Elkarteko kideak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |



Ekintza artifizialetatik harago, euskara ingurune naturaletan txertatzearen aldekoa da Idoia Genua. Pertsonarengana iritsi eta harreman horretatik jarrera, sentsibilitatea, medioak... lantzea funtsezkoa dela uste du Joxeja Zabalo.

GAZTELANIA NAGUSI DA IRUNEN eta dagoen eskaintza ere erdaraz da gehienbat. Erraztasunagatik, erosotasunagatik, ohituragatik... joera erdarara jotzea dela diote bi elkarriketatuek eta euskararen kalitateak ere kezkatzen du Joxeja Zabalo: “Beste herri batzuekin konparatuta, hizkera ugari daude gurean eta hori galtzen ari da. Gainera, jendeak euskaraz jakin badaki,

baina sarri funtsik gabe, desitxurata; esamolde gehienak adibidez erdaratik egindako itzulpenak dira, ez jatorriz euskarazkoak”. Izan ere, ingurune erdaldunetan bizi (izan) den jende ugari dago Irunen: “AEKn abesti herrikoiak jarri —dio Idoia Genua— eta, oraindik ere, harrituta geratzen naiz, batez beste 45 urte dituzten ikasleen artean Bilintxen *Triste bizi naiz eta ezagu-*

*tzen ez dutelako, doinua ere ez zaie ezaguna egiten. Begira nolako zigorra izan dugun hemen, zein isolatu bizi izan garen”. Gazteekin ere antzeko egoerak bizi ditu Zabalo: “Udalekuetan, gazteekin, eta gazte euskaldunetz ari naiz, musikaren inguruko ginkana antolatu genuen, eta Laboaren kanta bat edo *Furra*, *furra* ez zituzten ezagutzen, ez zekiten Benito Lertxundi nor zen...*

Egunerokoan haur batzuek gaztelania baino ez dute bizi inguruan: etxean, auzoko lagunekin, aisialdian... Jende hori euskalduna izan bada, euskaraz badakielako, baina euskaraz pentsatzea eta egitea falta zaio”.

Eta euskaraz pentsatu eta egin dezaten, ekintza artifizialeetatik harago espazio naturalak irabazi behar direla uste du Genuak: “Gure errealitatea ikusita, ekintzak antolatzea beharrezkoa ikusten dut, artifizialak izan arren, Mintzalagunaren gisakoak, baina hori bera ingurune hurbilera eramango nuke, modu naturalagoan eman dadin: hasi lagunekin euskaraz, inguru hurbila lantzen eta inguruko euskaldunak aktibatzen; hor sartu behar dugu”. Esaterako, euskaltegia bisita gidatuak antolatzen dituzte, hasieran talde naturalak ez diren horiek harremana euskaraz garatu dezaten eta gerora beste testuinguru batzuetan hala aritu daitezten. Pertsonengana iristea da gakoa, Zabaloren hitzetan: “Begirale moduan esaterako, gaztearekin dudari harremanean sakontzea lortuz gero, adiskidetasuna sortzea bion arteko komunikazioa euskaraz dela ziurtatuz, eraginkorragoa izango da emaitza. Azken finean, euskaraz aritu daitezela errepikatu hutsarekin ez dugu ezer lortzen gazteen artean, baina pertsonarengana iritsi eta jarrera, sentsibilitatea, medioak... lantzen baditugu bai”. AEK-ko zuzendariaren aburuz, euskaraz egiteak eta bizitzeak bide berriak irekitzen dituela helarazi behar zaie herritarrei, gauza positibo asko eskaintzen dituela euskarak, mundu oso bat, harreman berriak egiteko aukera...

Euskara ardatz, bertso-saio eta bertso-afariak, ikus-entzunezkoen proiektzioak, irteerak, egonaldiak, gastronomiarekin edo bestelako intereseekin zerikusia duten haur eta helduentzako tailerrak... antolatzen dira Irunen, nahiz eta hiri handia izanik, ekintzak herritarrei jakinaraztea zaila den batzuetan. Bitxia da, hori bai, erdal kutsuko hiri batean langa non jarri behar den hainbatetan: Euskal Kultur Taldeak Topaketa Gastronomikoak egin izan ditu, eta etorriko direnak batik bat 50 urtetik gorako emakumeak

direla eta Irunen profil hori batez ere erdalduna dela jakinik, erdaraz eskaini izan dituzte, gutxienez euskara elkartera gerturatu daitezela baita helburua, elkartean egiten ari diren lana ikus dezaten eta euskarazko informazioa eraman dezaten.

“Irun bezalako hiri batean, eskaintza ez dugu euskal jendera mugatzen, irekia da, eta erdaraz egiten duena ere euskarara erakarri dezakegu, batez ere gazteen artean”

Joxeja Zabalo

Herri bazkaria mugarri

Euskara sustatzeko espresuki presaturiko ekintzez gain, beste interes eta behar batzuetatik abiatutako ekimenetan euskara oinarritzko zutabeetako bat izatea ere eragiteko modu aproposa da. Irunen bada horrelako adibiderik: festetan ez zegoen Koadrila Egunik, harik eta –Udalarekin bost urtez izandako tirabiren ostean– 2009an Betti Gottik herri bazkaria martxan jarri zuen arte. Egun, gosaria, Olinpiadak eta bazkari herrikoia egiten dira eta arrakasta handia du irundar gazteen artean: 1.600 lagun bildu ziren

“Eguneroko dinamika erotik atera, eta ondokoak zertan ari diren aintzat hartuta, elkarrekin urte osoko plangintza egin beharko genuke, pixkanaka ari gara bide horretan”

Idoia Genua

azken edizioan. Bertaratzen direnak euskaraz aritzea da xede nagusieta, eta horretarako neurriak hartzen dituzte, goizeko ekintzetatik hasi eta bukaerara arte azalpen eta gainerakoak euskaraz emanez, jartzen den musika zainduz, kamiseta

lehiaketan euskarari lehentasuna emanez –oinarrietan adierazten denez–, arduradun euskaldunak jarri, euskarazko leloak dituzten lepo-zapiak banatuz...

Giroa, hala ere, beti ez da nahi bezain euskalduna, indar eta bitarteko guztiak jarri arren, parte hartzen duenaren esku ere baitago emaitza. Euskaraz hitz egitera derrihortu beharrean, dena den, bazkariaren arrakasta zubi lanak egiten jarraitzeko baliatu daitekeela uste du Zabalok: “Irun bezalako hiri batean, eskaintza ez dugu euskal jendera mugatzen, irekia da nahi duen ororentzat, eta erdaraz egiten duena ere euskarara erakarri dezakegu, egoerari buelta eman diezaiogegu, batez ere gazteekin”.

Euskara eragiteko berariaz antolatutako ekimenak behar dira Irunen –“bestela ez genukeen Betti Gotti sortuko”, dio Zabalok–, baina herri bazkarian bezala, euskara gainerako jardueretan txertatu beharra dagoela uste dute elkarrizketatuek, zerbait transbertsala izan behar duela. Hirian, errotuta dauden ekitaldi ugari daudela eta horietan euskara indartu behar dela adierazi du Genuak. AEKtik ahalegina egin zuten duela urte batzuk, jaiak euskaraz bizitze aldera Alardean euskara normalizatzeko; hots, jeneralaren eta gainerako agintarien agindua euskaratu (*Su!* eta halakoak, oso errazak) eta euskaraz esan zitzaizkien proposatu zieten agintariei. Egun, konpainiaren arabera hizkuntza bat edo beste erabiltzen dute Betiko Alardean, baina gaztelaniaz dira agindu orokorrak; geroago sortu zen Alarde Parekidean, ordea, euskaraz ematen dituzte.

Egunerokoari lotuago dagoen adibidea jarri digu Zabalok: Irunen 36 elkarte gastronomiko daude, gehien-gehienak euskaltzaleak, baina oraindik etiketa eta oharra euskaratzeko daude horietako askotan, “eta jende euskalduna badago, baina jarrera kontua da, ez hainbeste pasibotasuna, baizik eta *vasos, cuchillos*... idatzita ikusi eta atentzioa ez ematea, normala hori dela asimilatuta bagenu bezala”. Jabetzea horrek ez duela zertan normala izan, irundar euskaltzaleek aurrean duten erronka.



BETTI GOTTI

Bazkari herrikoia arrakasta handia du gazteen artean, 1.600 lagun bildu ziren iaz. Euskaraz aritzea da xede nagusietakoa, eta horretarako neurriak hartzen dituzte, baina parte hartzen duenaren esku ere badago emaitza.

Elkarlanean aurrerapauso garrantzitsua

Urrats esanguratsua eman berri dute Irungo euskara elkarteek: Euskararen Egunaren harira hila-bete lehenagotik egin diren ekin-tzetan (AEKerobika, ibilaldi neur-tu bereziak, kantu bazkariak, marrazki eta argazki lehiaketak...), egitarau bateratua osatu dute guz-tiek elkarlanean. Areago, elkarte euskaltzaleak ere (auzo elkarteak, gastronomikoak, kirol elkarteak, Irungo argazki elkarte...) ingura-tu dituzte eta funtsezkoa izan da hori, jende gehiagorengana iristeko eta jende berria inplikatzeko, bai ekitaldien antolakuntzan, bai parte-hartzean. “Elkarte askok ez dakite nora jo, baina jarrera ona dute eta prest daude laguntzeko”, dio Genuak, eta interesgarria da bide hori urratzea.

Indarrak batuta euskara eragi-leen arteko hartu-eman lantzeko atea ere zabaldu du Euskararen Egunak: “Hemen etxe barnean gauzak egiten ari ginen batzuk eta

ez genuen elkar hartzen. Euskararen Egunaren aitzakian, besteak egiten ari direna ikustea baliagarria izan da. Bakoitzak bere jardunare-kin jarraituko du, baina aldi berean gehiago elkartu beharko genuke, besteak egiten duena ezagutu, elkarlana bultzatu...”, adierazi du Zabalok. Hartu-eman horrek ahal-bidetu du, adibidez, Irunabar ber-tso bilguneko kideak AEKra hur-biltzea, kaleratu duten *Gure berts(i)oa* diskoa aurkeztera. “Egu-neroko dinamika erotik atera, eta ondokoak zertan ari diren aintzat hartuta, elkarrekin urte osoko plan-gintza egin beharko genuke, pixka-naka ari gara bide horretan”, berre-tsi du Genuak.

Haatik, Udalak euskara elkarte-entz lan ez duela behar bezainbeste aint-ztat hartzen ez aitortzen kritikatu du Joxeja Zabalok.

Herritarrak zer egin dezake?

Norbanakoak ere asko egin deza-keela azpimarratu dute euskara era-gileek. “Jendeak ez du lehenengo

hitza euskaraz egiten —diosku eus-kaltegiko zuzendariak—, beti zain egoten gara, besteak nola egingo duen, denda batean sartzen gare-nean adibidez; zalantzan jartzen dugu besteak ere euskaraz jakingo ote duen, eta zalantzati joaten gara tokietara, jarrera deserosoak bazter-tu nahian-edo. Aitzitik, norberaren mekanismoa martxan jartzea da onena, inoren zain geratu gabe, norbera delako irakaslerik onena. Euskaraz dakien asko dago ingu-ruan, eta jakin ez arren ere poliki hitz eginda, autobuseko txoferrari ‘Hondarribira bi’ edo tabernariari ‘bi zurito’ esanda berdin-berdin ulertuko digute”. Betti Gottiko kideak ere formula egokia iritzi dio, euskararen erabilera zabaltzen baitu, komunikazioari kalterik egin gabe: “Guregan dago, geuk ez badugu gure hizkuntza bermatzen, ez du beste inork egin-go”. Azken beltzean, gainera, Genuak dioen legez “Euskal Herria-ren bihotza da Irun!”. ■



Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia



Osasun sistema publikoa desegingo du Greziako Gobernuak

Osasun sistema publikoa deuseztatzea erabaki du Greziako Gobernuak: sistema berri bat onartu du, funtzionario ugari kaleratzea eta lehen mailako arreta pribatizatzea ahalbidetuko duena.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |



Sistema berriak osasun aseguru-etxe baten moduan funtzionatuko du.
Irudian, Grezian osasun publikoan egin dituzten murrizketen aurkako manifestazioa.

OSASUN SISTEMA NAZIONALA izango da ezarriko duten eredu berria. Ondorioz, 8.500 langile ingururen kontratuak eten egingo dira, eta langile horietatik batzuk berriz kontratatuko dituzte eta beste ugari kaleratu. Sistema berriak osasun aseguru-etxe baten moduan funtzionatuko du eta zerbitzuak erosi-ko dizkie hornitzaile autonomoei (anbulantzia zerbitzua, medikuak, diagnostikorako zentroak, klinikak...). Hots, pribatizazioaren ateak irekita utziko ditu ezarriko duten ereduak.

Nazioarteko Moneta Funtsak, Europako Banku Zentralak eta Europar Batasunak osatzen duten Troikak agindutako 11.000 funtzio-

narioak kaleratu ahal izateko, Greziako Gobernuak erakundeak desegiten ari da: Irrati telebista publikoa itxi zuten —eta 2.500 langile kaleratu—, baita udaltzaingoa, Lanbide Heziketako 50 espezialitate, ospitaleak eta ikastetxeak ere, legalki funtzionarioak bota ahal izateko. Estrategia horren barruan kokatu behar dugu osasun sistema publikoa desegin eta eredu berria ezartzeko hartutako erabakia.

Gainera, Greziako Gobernuaren 2014ko aurrekontuak beste 700 milioi eurotan gutxituko du Osasunera zuzendutako diru kopurua eta ez du euro bakar bat bideratuko osasun asegururik gabe daudenak artatuak izan daitezzen.

Gaur egun, urtebete baino gehiago langabezian daramatelako, greziarren %30ek ez dute osasun aseguru hori.

Krisi ekonomikoa abiatu zenetik, murrizketa politika bortitza jarraituz baliabide materialak, botikak eta langileak gutxitzen joan dira Greziako osasun publikoan —hala nola, %40 gutxitu dute ospitaleetara bideratutako inbertsioa— eta ikerketek azaleratu dute ondorioak larriak izaten ari direla herritarren artean. Besteak beste, gaixo eta kutsatu kopurua hazi egin da azken urteotan eta buruko gaitzek ere nabarmen egin dute gora greziarren artean. ■



Pintxo-poteari buruzko spotak euskaraz

EUSPOT, euskarazko spot lehiaketak, hirugarren edizioa egingo du aurtten. Ondoko gaia landu beharko dute iragarki sortzaileek: “Pintxo-potea eta euskara”. Euskal Herriko edozein herritarrek, eta irizpide batzuk betez gero atzerriko batzuek ere, parte hartu dezakete Euspoten. Maiatzaren 9ra arte dago lanak bidaltzeko aukera. Lehiaketak 2.250 euro banatuko ditu irabazleen artean. Lau sari izango dira. Spot onenak 1.000 euro jasoko ditu, Mondragon Unibertsitateko ikasleen spot onenak 500 euro, Publikoaren sariak beste 500 euro eta Gazteen sariak (18 urtetik beherakoak) 250 euro. Antolatzaileak Aretxabaletako Udala, Mondragon Uni-



bertsitatea eta Arteman Komunikazioa dira. Aurreko bi ekitaldietan arrakasta izan zuen Spotek. Iaz adibidez 22 lan jaso zituzten.

Andoni Sagarna Ibon Sarasolaren orde

ANDONI SAGARNAK zuzenduko du hemendik aurrera Euskaltzaindiaren Hiztegia, Adierak eta Adibideak egitasmoa. Hiztegitintza alorreko buru Ibon Sarasola zen, baina kargua utzi zuen 2013ko

hondarrean. Hala egin zuen Gramatika Batzordeko kideek dimisioa aurkeztu eta gero. Sarasolak adierazi zuenez, “Euskaltzaindian ikusten dudana giroa ez da nire gogokoa”.

Bahea

Amaia Zubieta eta Kepa Yekora
Eilaseko kideek Garan esanak:

“Europako toki gehienetan atzerriko hizkuntza 8 urterekin hasten dira irakasten, nahiz eta azkenaldian gero eta lehenago hasteko joera dagoen, batzuetan 6 urterekin. Espainiar Estatuan eta Belgikako eremu batean baino ez dira hasten 3 urterekin. (...) Hala da, ingelesak bozak ematen ditu eta euskarak aurrera egitea galarazten du. Horregatik, Nafarroako herrietako alkateek eta zinegotziek PAI [Ingelesa Ikasteko Programa] ezartzeko eskatzen dute eta Hezkuntza Saila bizkor dabil eskaerei erantzuten. (...) Ikastetxe askotan irakasleak kontra daude, gutxietsiak sentitzen dira, ez zaie informaziorik ematen, ez zaie iritzirik eskatzen; beste batzuetan etsita daude eta PAI ezartzea onartzen dute, bestela PAI ezarrita duten ondoko herrietako ikastetxeetara alde egingo dute matrikulek. Familiaren zeregina oinarritzakoa da. Zentzuzkoa den moduan, hoberena nahi dute seme-alabentzat eta jasotako erdizkako informazioak badio onurak baino ez dituela, eta gainera, eskola garaia bukatuta elebidunak izango direla, jakina, kontra egin baino gehiago, eskatu egiten dute. Derrigorrezko eskolara garaia amaitu eta elebidunak izango direla esatea familiei gezurra esatea da”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Bankuak beti irabazten du

BANKUAK hasi dira 2013ko ekitaldiaren emaitza onak erakusten, krisiak enpresak eta familiak erasotzen segitu duen arren. Adibide gisa, Espainiako Estatuko bost banku nagusiek (Santander, BBVA, Caixabank, Popular eta Sabadell) 7.674 milioi euro irabazi zuten 2013an, 2012an baino lau aldiz gehiago. Santanderrek 4.270 milioi euro irabazi zuen, %90 gehiago; BBVAk 2.238 milioi, %32,9 gehiago, eta Caixabanken eta besteen irabaziak 503 milioi gehitu ziren, %119ko igoera hain zuzen. Euskal kutxek ez dute oraindik emaitzarik aurkeztu, baina norabide horretan joango dira.

Bankuek asko irabazten dute, familia eta enpresetan arriskutzen ez dutelako. Europako Banku Zentraletik dirua lortzen dute ia %0ko interesen truke, eta kredituak eman beharrean, zor publikoa erosten dute %3, %4 eta %5ean. Finantza erakunde espainiarrek zor publikoan duten saldoa 200.000 milioi eurokoa da. Horrela funtzionatzen du kapitalismoak eta halaxe uzten diete egiten bere kudeatzaile politikoek, ohiko

gobernuek. Poltsikoak beteta dituztela, langileen eta herritarren kontrako neurriak inposatzen dituzte.

Bankuek erruz irabazten dute bitartean, herritarrei soldatak, pentsioak eta diru-laguntzak murrizten dizkiete; enpresak ixten dituzte; porrot egin eta ordainketak eteten dituzte behin eta berriz; pobrezia, langabezia eta prekarietateak gora egiten du. Hain justu, kapitalismo basatienaren ispilu izaki, bankuak dira egoera horren arduradun. Politika antisozialak inposatzen dituztelako, herritarrei ondorio kaltegarriak eraginez, eta enpresak eta familiak itotzen dituztelako, kredituak ez dizkietelako ematen. Beren negozioerik handiena da zor publikoarekin jolastea. Bankuak beti irabazten du eta galtzen badu, gure diruz salbatzen dute. Giro horretan, pobrezia eta prekarietatearen kontra euskal gehiengo sindikalak eta gizarteak Gune Plataformaren bidez hasitako mobilizazioa oso garrantzitsua da.

Juan Mari Arregi



Parisek atzea dauka beterik zabortegiz eta errauskailuz

Otsailaren 1ean Frantziako Zero Zabor mugimendua aurkeztu da Paris ondoko Bobigny. Zentral nuklearren herrialdean, jendeei beren etxeetako hondakinak erraustuz desagertuko zirela prometituta zitzairen horretan, gero eta gehiago dira “aski da!” oihukatzen dutenak. Parisko eraikin apainen atzeko aldean gainez egin du zaborrak.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

CHARLES DE GAULLE AIREPORTURA heldu denak ikusi du hainbat tximinia inguruetan. Otsailaren 1ean Bobignyko udaletxean esplikatu zitzaigun denak ez direla adreiluak egiteko labeenak: errauskailu eta zabortegiz inguratuta bizi dira paristarrak. Eta inguruko askok esan dute aspertu direla, ez dutela onartuko beste errauskailu berri bat eta ez harentzako zaborrak lehortuko dituen TMBrik.

Zero Waste Europe mugimenduaren biltzarrean mahairatu dituzten beren kexuak Paris metropolitarrako herritarrek. Mundutarrok *Paris* izendatzen duguna benetan eskualde oso bat da, Ile-de-France, ia 12 milioi jende biltzen dituen.

Publizitateak turistei bi milioiko hiriburu muinaren irudiak erakusten dizkien arren –Eiffel dorrea, zubiak, Arc du Triomphe, Sacre Coeur eta istorio– bidaiaria fite ohartzen da hori baino nahasiagoa dela osoan. Metroan erdigunera hurbildu ahala zurrizten dira jendeen aurpegiak, periferiara urrundu arau belzten. Bobigny, Courneuve, Drancy, Nanterre... Liskarrak jazo direnean baino ez dizkigu erakutsi telebistak, baina horkoek ere esango dizute Parisen bizi direla.

Hiri guztietako eliteen berdin-tsu jokatzeko da Parisekoak: erdiguenea zaindu sagrarioa bezala;

zatarra, zikina, txiroa den oro periferiarako. Lehen fabriketako prolektario etorkinak. Orain haien seme-alaba prekario edo langabeak. Zer esanik ez belaualdi berri-berriko etorri berriak, kaukasarrak, indiarak...

Zentrorra zerbitzu lanera datozen langileek lotarako itzuleran berekin baleramate bezala, hondakin-jendea ere periferiara doa haiekin. *Ville-Lumière* (Argi-hiria) deituak ez du lekuri zaborrendako. Aldiz, zaborra soberan ekoizten du Ile-de-France eta kopuru izugarrietan dauka pilatuta. “Europako zabortegi handiena” deitu dio François Mouthon ARIVEMeko kideak Bobignyko biltzarrean.

Zentral nuklearretan bezala hiri hondakinen errausketan ere txapel-dun da Frantzia. Ordainetan, gaikako bilketa eta birziklatzean azken putz dabil. Kontua da, saltzaileen propagandak alderantzizkoa dioen arren, errauskailuek beti behar dituztela zabortegiak beren errausteko eskoriak lurperatzeko.

CNIID Hondakinei buruzko Informazio Independenteen Zentro Nazionalak dauzka bere gunean eguneratuak Frantzia osoko datuak. Ile-de-Franceko departamenduek orotara 19 errauskailu dauzkate martxan, 4.273.000 tona zabor kiskaltzeko gaitasunez. Horiek urtero

Parisko Luxembourgeko parke famatuan eskegitako pankartak protesta egiten du Ivry herrian eraiki nahi duten errauskailu berrien kontra. Seine-et-Marne (94) departamenduaren zati da Ivry-sur-Seine. Marne eta Seine ibaien bazterretako hiru departamenduen artean 5,7 milioi biztanle dauzkate, 2,4 milioi tona zabor sortzen dute, horietatik 1,85 milioi tona (%77) kiskaliz 8 errauskailutan. Hauek berez 2,25 milioi tona erretzeko ahalmena daukate, baina orain errauskailu parkea berritzeaz batera inguruko zabor gehiago kiskaltzeko 1.000 milioi euro inbertitu nahi ditu SYTCOM elkarteak bertan, errauskailu eta TMB berriak eraikitzeko. Baina oraingoan herritar asko ohartu da teknologia berri guztiok ez dituztela zabortegiak gutxitzen, ugaritzen eta handitzen baino. Eskatzen dute errauskailuentzako zaborrak lehortuko dituen TMBrik ez egitea eta errauskailuentzako moratoria.

746.000 tona eskoria sortzen omen dituzte. Istripuez landa. Baina, ez da hori dena.

Claye-Souillyko mega-zabortegiaren kontrako ADENCA elkarteak salatu duenez, hiri hondakinentzako errauskailu eta zabortegiez gain Ile-de-Franceko eskualde batzuk itota daude zabor industrialen biltegiz, eraikuntzako hondakinen betelanez, hondakin toxiko eta nuklearrentzako biltegiz...

“Gure eskualdearen arazoetako bat da garai batean meategitan oso aberats izanak garela. Orain harro-bi, zulo eta gainerakoak bete ostean, garitarako soroak ere zarama leku bihurtu dizkigute”.

TMBak, errauskailu eta guzti

TMB baten kontrako matxinadak harrotu ditu bazterrak Paris inguruetan bezala Frantzia osoan. Hondakinen tratamendu mekaniko biologikoa (TMB) errausketatik aldentzeko urrats moduan aurkeztu duten arren saltzaileek eta agintari gehienek, kontrako taldeak ugaritu zaizkio Frantzia osoan.

Auzoan egokitu zaien ez dute horien kalterik nozitu nahi. Erraz deitzen zaie NIMBY (*Not In My Back Yard*, “Ez ipini hori nire atarian”) baina egia da TMB erraldoiek arazo asko (trafiko, burrunba, kirats...) eman dizkietela ondoko



bizilagunei eta istripu larriak eragin ere bai, suteak barne.

Baina, gainera, herritarrak ohartu dira teoriarik hondakinak mekaniko-ki eta biologikoki tratatzen dituzten usina horietan hein handi batean zaborrak ez dituztela errauskailuentzako lehortu baizik egiten.

Hori gutxi balitz, TMBetan sortutako konpostaren kalitatea dago auzitan. Logikarik xumeenak dio zabor nahasietan jaurtitako hondakin organikoak, ondoen tratatzen dela ere, nekez eman lezakeela bereizirik bildutako ekoiztutakoaren konpostaren parekorik.

TMBen sustatzaileek sarritan aipatu dute nekazaritzarako erabiliko dela beren ongarria, baina Romainvilleko TMBaren kontra borrokatzen den

ARIVEM koordinadorak zabaldu du oso baseritar gutxi onartzen duela horrelakorik bere sorotan. TMBko konpostaren lagin kutsatuak prentsan aurkeztu dituzte. Bestalde, lehendik kaleetako zuhaitz eta landareen hondarrekin konposta egiten zuten enpresa txikiak ere kexu dira TMB handiek berenganatzen dutelako begetala den oro, konpost txarra landare-hondar garbitan diluitzeko.

Zero Waste mugimenduko adituek ondo bereizten dituzte TMB izenarekin aipatzen diren soluzio ezberdinak. Hondakinak tratatzen hasi aurretik egindako bilketan datza gakoa. “Gaikako bilketa on bat ez baldin badago, ez dago zer eginik”, esan du Enzo Favoinok, 2011ko biltzarrean Donostian

gipuzkoarrak ohartarazi zituenak berak. Izan ere, gauza bat da hondakinak garbi bereizi ostean azken errefusari eman beharreko tratamendu mekanikoa (oraindik dauzkan atal birziklagarriak) eta biologikoa (azken hondar organikoak egonkortzeko). Eta oso bestelakoa organiko ustelkorrez gainezka datarren zabor nahasiari ematen zaiona.

Baionan Bil ta Garbi mankomunitateak eraiki duen *Canopia* TMBa bigarren gisa honetakoa dela salatu dute ADECH elkarteak biltzen dituen ingurukoek. Bizkaian berrikitan Zabalgarbi ondoan estreinatu duten TMB berria ere hondakinen kudeaketa eredu beraren barruan dago, errauste plantaren osagarri. Berdin Frantzian oihartzun handiena eduki duen Romainvillekoak, Ile-de-France departamenduan, berrikitan auzitegiek zintzilik utzia.


“Paradigma aldatu beharra daukagu” izan da Bobignyko *leit motiva*. “Edo hondakinak murrizten ditugu edo hondakinen negozioak gizenduz ustelduko gaituzte”. Bobignyko bilkuran nabari zen bertako ekin-tzaile eta mugimenduek *txipa* aldatu dutela Italiako Milanen Atez Ateko bilketa ikusi dutenetik. Bestelako eredu bat posible dela erakutsi zieten, ZWEren biltzarrean, Capannori hiriko alkateak eta Contarina mankomunitateko lehendakariak

Gipuzkoako Ingurumen diputatu Iñaki Errazkinen adierazi zienean gaikako bilketan bidea egiten hasi eta errauskailu proiektu bat bertan behera utzi dutela, txaloka eten zioten hitzaldia. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona



DANI BLANCO

Ez da biktimarik espetxeetan

IPAR IRLANDAKO biktimen familiek badituzte Euskal Herriko biktimek dituzten antzerako zauriak, baina horietako batzuk sendatze bidean daude, besteak beste eta arazoak arazo, haiei arreta eman dien bake prozesu bat abiarazi zutelako duela 15 urte. Egia, justizia eta memoriaren ikuspegitik esparru asko jorratu dituzte eta neurri batzuk oso bitxiak egiten dira Euskal Herritik begiratuta, noiz eta Euskal Herrian joan den asteen hildako berri bat izan denean. Horietako bi neurri oso deigarriak dira.

Bata da immunitate mugatuaren kontzeptua: hau da, Ipar Irlandako gatazkaren biktimak edo biktimaren familiak bide hau erabiltzeko baimena ematen dutenean, norbaitek deklaritzen badu delituren batean parte hartu duela, hori ezin da bere aurka erabili auziperatzean. Horrela egia atea zabaltzen zaizkio eta lortzen dute ezkutuan dauden auziak argitzea eta familien mina arintzea. Egia justiziari gailentzen zaio kasu honetan. Delitua eta zigorrarekin du zerikusirik beste neurriak: 1998a (Ostiral Santuko Akordioak) baino lehenagoko delituengatik zigortutako edozein pertsona ez da izango espetxean bi urte baino gehiago.

Zauriak apurka arintzera eta elkarbizitza erraztera bideratutako neurriak dira. Beste zauri asko ez dira inoiz sendatuko, berarekin eraman beharko du beti biktimaren sendiak edo lagunak edo biktimak berak. Beti. Ez dago hainbat zauri arinduko duen ez bake prozesurik, ez espetxe zigorrak ezta heriotza zigorrak ere. Zauria arindu bai, ezabatu ez.

Arintze hori bilatu izan balitz, agian Arkaitz Bellon ez litzateke biktima bat izango. Biktima? Baina Arkaitz Bellon ere biktima ote da? Eta zein biktima multzotan sailkatu beharko litzateke? Euskal instituzio nagusienetan, legebiltzarretan adibidez, jorratutako biktima sailkapenetan ez dago espetxeekin lotutako biktimarik, ez presoentzat ez istripuetan hildako senideentzat ere. Gehienera, presoen sakabanaketaren aurkako adierazpenak daude eta hauek Euskal Herriko inguruko espetxeetara hurbiltzeko eskaerak.

Zirrikietan gehiago arakatuta, egon daiteke tarterik, hala ere. Zera dio Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzaz Zuzendaritzak biktimez: “Esparru horretan, terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen ondorioz kalte larria jasan duten pertsonak dira biktimak. Heriotza izanez gero, senideak dira biktimak, ezarritako ahaidetasun-mailaren arabera”. Urratu ote dizkiote urte hauek guztietan bere giza eskubideak Belloni?

Ipar Irlandan, 1998a baino lehenagoko delituengatik zigortutako edozein pertsona ez da izango espetxean bi urte baino gehiago

Zerbait gehiago ere badago: iazko ekainean Manuela Carmena, Jon Mirena Landa, Ramón Mújica eta Juan Maria Uriartek giza eskubideen bortxaketaz (1960-2013) egindako oinarritzko txostenean agertzen da espetxeetako atal bat, baina bi lerrotan argitzen da esparru horretan orain egin litekeena: “Giza eskubideak defendatzen dituzten erakunde ofizialek (batik

bat, Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak) bildutako gomendio eta zantzuen arabera, tratatu txar krudel eta iraingarrien salaketak ikertu eta zenbatu egin behar dira oraindik”. Beraz, badira salaketak, oraindik ikertu gabe daude eta ikertu behar dira.

Ez dago zalantzarik euskal gizartearen zati batentzat Arkaitz Bellon Espainiako espetxe politikaren biktima dela, baina hala ote da baita ere, adibidez, Eusko Legebiltzarrentzat? Baina zergatik biktima heriotza naturalez hil bada? Emango ote dio biktima ukiturik kale istiluengatik jasotako kartzela zigor desproporzionatuak (13 urteko espetxe zigorra)? Eta atxilo-aldian salatutako torturak? Bere heritik 1000 kilometrorantz izateak? Berak salatutako espetxe funtzionarioen lau jipoiak ikertuko ote dira? Eta isolamendu une luzeak kontuan hartuko al dira? Emango ote dio biktima zantzurik baldintzapeko askatasunean egon behar zuenean kartzelan egoteak? EPPK-koak ez diren Espainiako beste 68.300 presoeta-

ko bat balitz, bere zigorraren 2/3ak edo 3/4a beteta zituenez, kalean legoke. Eta, batek daki, akaso kalean egonda ere hil egingo zen, kalean ere jende asko hiltzen da eta. Baina espetxean hil da, aipatu testuinguru horretan. Biktima ote da orain arte eraman den espetxe politikaren aurka agertu diren guztientzat? Egia baldin bada Eusko Legebiltzarreko gehiengoak sakabanaketaren aurkakoa eta beste espetxe politika baten aldekoa dela, Bellonen heriotzaz ere zerbait esan beharko luke. Zer? Hara erronka. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat



HAMLET Lekeitio

2 lagunentzako bina sarrera
Otsailak 28 · 22:00
Ikusgarri Antzokia

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

1



HAMLET Elorrio

2 lagunentzako bina sarrera
Martxoak 1 · 20:00
Arriola Antzokia

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

2



HAMLET Otxandio

2 lagunentzako bina sarrera
Martxoak 2 · 19:00
Kiroldedia

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

3



Kultur Maratila

GABRIEL LUKUA

BERTSOAK / MUSIKA / ANTZERKIA

Gabriel Aresti Kultur Elkartea
Zenbat Gara

2 lagunentzako bina sarrera
Otsailak 23 · 20:30

Artedrama Kultur Leioa

Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2401. Argia)

IRIARTE JAUREGIA

• Iñaki Urbistondo Plazaola (Azpeitia)

Kultur Maratila KOMPOTA Dxusturi Teatroa

• Maria Rosario Azpiroz Arrillaga (Tolosa)
• Trapagarango Udal Euskategia (Trapagaran)

DAMBA Hautsi... eta izan zaitez zu CDa

• Fatima Gonzalez Egiluz (Donostia)
• Libe Mimenza Castillo (Elorrio)
• Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)
• Alkizado Udal Liburutegia (Alkiza)
• Olaia Elortza Iñarra (Zegama)

JOSEBA LEINOR Instroak Vol.2 CDa

• Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)
• Irune Iturbe Arriola (Aretxabaleta)
• Edurne Arrizabalaga Basterrebea (Ondarroa)
• M. Jesus Barreneitea Azkunaga (Galdakao)
• Imanol Irigoien Aranberri (Oizartun)

ERLEA GURE SENDAGILE liburua

• Manoli Zaldua Muruaga (Hernani)
• Jose Maria Segurola Amutxastegi (Gasteiz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza

(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 145 € / Iparr Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA

20160 LASARTE-ORIA

(GIPUZKOA)

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

TOLESTU

ZELOPAREA
HEMENDI VITI